

hh
hik hasi

174




GAIA: ESPAZIOEN ANTOLAKETA HAURAREN AUTONOMIA GARATZEKO •
ELKARRIZKETA: ROSA VIDIELLA I BADELL • PARTAIDETZA (IV) • IKASLE
EUSKALDUN ELEANITZAK • HEZKUNTZA INKLUSIBOA ETA ESKOLA PORROTA •
GALDEIDAZUE: JUAN CARLOS TORREGO • ARRIKRUTZ KOBAK • SAIOA IRAOLA

2 urtetik aurrera

MiKO



Gaur, bainurik ez!



Non da Mimiki?



Txakur bat nahi dut!



Esnatu, amatxo!
Zatoz jolastera!

4 urtetik aurrera

IPUIN BILDUMA

ALBUM ILUSTRATUAK.

MARRAZKIAK OSATZEKO ETA MARGOTZEKO LIBURUA



Ipuin goxoak



Iratxoaren Txanoa




Maite nauzu oraindik?



Zirrimarrak

9 urtetik aurrera

EZAGUTZA LIBURUAK



Egipto



Mendebaldearen konkista

aurkibidea



10
gaia

ESPAZIOEN ANTOLAKETA JARDUNALDIAK

“Espazioen antolaketa haurren autonomia garatzeko” jardunaldietan umearen beharrak, gaitasunak eta garapen ebolutiboa aintzat hartuko dituen haur eskolak diseinatzeko, hainbat gako eman zituzten Joxe Ramon Mauduit psikologoak, Rosa Vidiella i Badell psikopedagogoak eta Kristina Goñi eta Mari Jose Arozena haur eskoletako zuzendariek.



16
elkarrizketa

ROSA VIDIELLA I BADELL

Haurren behaketatik abiatzen du bere lana, Pikler-Loczy institutuaren oinarriekin bat eginez. Haurari erabateko askatasuna eta segurtasuna emango dioten espazioak antolatzen eta diseinatzen laguntzen du.

5 editoriala

6 hizpide izan da

8 hizpide izango da

10 gaia

ESPAZIOEN ANTOLAKETA, haurren autonomia garatzeko

16 elkarrizketa

ROSA VIDIELLA I BADELL hezitzailea eta pedagogoa

23 PARTAIDETZA (IV)

30 esperientziak

Ikasle euskaldun eleanitzak sortzen. Dimako ikastetxean eta Donostiako Aitor ikastolan

33 ekarpenak

Hezkuntza inklusiboa eta eskola porrota.

35 galdeidazue

Ba al du zentzurik ikasleen artean elkartasun egiturak sortzeak? Juan Carlos Torrego

40 nora joango gara?

Oñatiko Arrikruz: lurraren barrunbeetan

42 Atzeko atetik

Saioa Iraola Urkiola. Bilgune Feministako kidea

Argitaratzailea: **XANGORIN** Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.com; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.com; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690. Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostitzu eta Arantxa Urbe. Erredakzio batzordea: Nerea Agirre, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Mari Karmen Irastorza, Pello Jauregi, Iñigo Larrañaga, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Maite Saenz, Xabier Sarasua. Aholkulariak: Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Felix Basurko, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Luis Mari Elizalde, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Amaia Vazquez, Lontxo Oihartzabal, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz. Administrazioa: Arantxa Goiburu. Diseinua: Graf!k. Maketazioa: Xangorin. Inprimategia: ANTZA S.A.L. Azaleko irudia: hik hasi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak onetsia (2012-12-18). Kopurua: 3.500 ale.

hik hasiko artikuluek edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. hik hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

www.hikhasi.com

EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACION,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION



Opari ezazu etxerako heziketa aldizkaria.

Urteko harpidetza **20 euro** (4 ale)



ETXERAKO HEZIKETA ALDIZKARIA 2. ZENBAKIA

Hazi Hezi



Hazi Hezi

"Bata erdituak
nazi?"

Amaz izatean,
mundua desarmatu
egiten zaigu

Hursegorekin
elkarrizketa

GAIA: EDOSHITZEA
Osasun iturri
ELKARRIZKETA: RAFAEL CRISTOBAL
**"Ez diezaiegun
ez umeari eta
ez familiari exijitu"**
FAMILIA ETA ESKOLA
**Egokitzapen
samurra**

www.hikhasi.com

* hik hasi, Berria eta Irria-ren harpidedunek beherapena izango dute.



editoriala

urtarrila

LOMCE: eskola-porrota handituko duen legea



Herrialde askotan (Herbehereak, Finlandia, Alemania, Estonia), udalen parte-hartze zuzena sustatzen da, emaitzak hobetzen dituelako. Hau da, deszentralizazio prozesuak indartu egin dira hezkuntza-kalitatearen onerako.

Azken hamarkadetan, lege organiko ugari argitaratu dira Espainiako Estatuan. Organiko hitzak, estatu osoko hiritarrei ezartzeko egina dela adierazten du. Madrillgo gobernura iristen den alderdi bakoitzak hezkuntza-lege organiko berria egiten du, hiritar guztiei bere ideologia ezartzeko asmoz. Hainbatetan, gainera, legea argitaratu bai, baina ez du denborarik izaten ezta mar txan abiatzeko ere.

Orain, PPren gobernua ezarri nahi duen LOMCE (*Ley Orgánica para la Mejora de la Calidad Educativa*) legearen aurreproiektuan ageri denaren arabera, estatuak hartuko ditu erabaki garrantzitsu guztiak: curriculuma gehiago zentralizatuko du (lehen %55, eta, orain, %65); estatuak ezarritako azterketak maizago egingo dira (lehen, Batxilergoaren amaierako hauta-proba zen; orain, berriz, LHko 6. mailan, DBHko amaieran eta Batxilergoaren amaieran izango dira); hizkuntza nagusia gaztelania izango da; ikastetxeetako zuzendaritzek administrazioaren zerbitzura aritu beharko dute, horretarako, zuzendarien gorputz propioa osatuko du; eta abar.

Aurreproiektuaren hitz gakoak hauek dira: konpetibitatea, ekonomia, arrakasta, merkatua eta kalitatea.

Aztertzen baditugu legeak hartzen dituen neurriak eta izango dituen ondorioak, argi ikusiko dugu ez dutela inolako oinarri zientifikorik, ideologia hutsa dela, ideologia baztertzalea, eta, hiritarrentzat, oro har, ondorio kaltegarriak izango dituztela.

Herrialde askotan (Herbehereak, Finlandia, Alemania, Estonia), udalen parte-hartze zuzena sustatzen da, emaitzak hobetzen dituelako. Hau da, deszentralizazio prozesuak indartu egin dira hezkuntza-kalitatearen onerako. Beraz, legeak ez du kalitatea hobetuko, alderantziz baizik.

Pedagogo ezagunek egindako ikerketen arabera (Howard Gardner, eta beste), eskola komunitateak parte hartzen duen heinean, ikasleek era guztietako emaitzak hobetzen dituzte, emaitza akademikoak barne.

Estatuak ezarritako azterketak ugariak izango direnez, eragin handia izango du irakasteko metodologietan. Izan ere, ikasleak azterketetarako prestatuko dira, memoriza-

tzen ikasiko dute, baina ikasle bakoitzak zail izango du bere garapen propioa egitea. Hala, irakaskuntza konduktistagoa bihurtuko da, eta zaila izango da oinarritzko kompetentziak behar bezala garatzea. Epe luzera, ikasleak ez errespetatuak eta bortxatuak sentitzean, emaitza eskasagoak izango direla ondorioztaliteke.

LOMCEk ez du ikaslearen garapena era integralean hartzen, merkatua hartzen du jainkotzat, pertsona bigarren planoan utziz. Ikasleen arteko kompetentzia indartzen du baina ez ditu pertsona kompetenteak sortzen. Ondorioz, ez ditu lantegiek eta bestelako lanek behar dituzten pertsona kompetenteak, arduratsuak, sortzaileak prestatuko.

Euskararen Kontseiluak markatu zuen bidea: hezkuntza eragileak elkarlanean arituta eta adostuta, *Ikasle enuskaldun eleanitzak sortzen* txostena plazaratu zuen duela bost urte.

*Euskal Curriculum*a garatzeko ahaleginak egin dira, baina hobeto sustatu behar dela iruditzen zaigu, herri hau normalizatzeari nahi badugu, behinik behin!

hizpide

Cristina Uriartek Zela ordezkatu du Hezkuntza Sailean

Cristina Uriarte da abenduaren 17az geroztik Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura sailburu berria, Isabel Zelaa sozialistaren ordez. Hondarribian 1961. urtean jaioa da Uriarte, Kimikan doktorea da eta EHUren Gipuzkoako campuseko Kanpo Harremanetarako zuzendari izandakoa. 2004. urteaz geroztik Gipuzkoako errektoreordea zen. Euskalduna da eta Iñigo Urkullu lehendakariak osatu duen taldeko kide independenteetako bat da. Sailen kopurua murrizte aldera, Hezkuntza eta Kultura Sailak bakar batean biltzea erabaki du Urkullu lehendakariak.



Wertek erreforma “eraso larria” da euskalgintzarentzat

Espainiako Gobernuak prestatu duen hezkuntza erreformaren berri eman zien Jose Ignacio Wert Kultura eta Hezkuntza ministroak autonomia erkidegoetako ordezkariei abenduaren 5ean. Urtean zehar PPK zentralizazioaren bidean tantaka eza-gutzeria emandako neurriak berrestez gain (esaterako, oinarriko ikasgaien kurrikulumean eragin handiagoa izango du estatuak aurrerantzean, eta ikasleei azterketa “naziionala” egingo diete irakastaldi bakoitzaren amaieran), euskara ikasgaiari dagokion beritasuna zekarren Wertek aurkeztutako dokumentatuak: euskara “espezialitateko ikasgaitzat” jotzen du erreformak, gaztelania eta atzerriko hizkuntzak baino maila apalagokoa. Halaber, ikasle guztiek “gaztelania uler dezaten eta zuzen mintza daitezen beharrezkoak diren neurriak” hartu behar direla zehazten du, euskarak jasotako tratamendua gaztelaniarekiko “arrazoizko proportzioan” egon beharko duela baina ezin duela inolaz ere gaztelania “eskolatik at” utzi, eta gurasoek hizkuntza hautatzerakoan ez badute sare publikoan edo itunpekoan nahi dutena aurkitzen, pribatura jo ahalko

duela, gastuak administrazioei utzita.

Erreforma planak Euskal Herriko alderdi, sindikatu eta hezkuntzako elkarte eta eragile gehien arbuioa piztu du. Euskalgintzak Wertek erreformaren “eraso larria” salatzen du, eta “hizkuntza komunitateari hitunak ekartzen jarraitzeko konpromiso sendoa” berrestez gain, hari eusteko babes eskatu du. Paul Bilbao Kontseiluko idazkari nagusiaren esanetan, euskara berreskuratzekeko prozesuan “inflexio puntua” izan liteke hezkuntza erreforma, “hainbat aurrerapauso baliogabetu eta hizkuntzaren etorkizuna bera arriskuan jar lezakeelako”. Koldo Tellitu Ikastolen Elkarteko presidenteari iritziz, “atzerapauso ikaragarria” eragingo luke erreformak, “dena haien menpe izango lukete eta guk apenas sartu ahal izango genukeen eskurik”.

Abenduaren 19an berriz bildu ziren Wert ministroa eta erkidegoetako ordezkariek. Cristina Uriarte Jaurlaritzako Hezkuntza sailburu izendatu berria bertan izan zen, eta “kezkatu” atera zen bileratik, Wertek ezer aldatzeko asmorik ez duela ikusita.

izan da

Eskola-jantokien kudeaketa arautzen duen dekretua aldatzeko eskaera egin diote Jaurlaritzari



50 elkarte eragilek eta 500 herritarrek sinatu dute ikastetxe publikoetako jantokien kudeaketa eredia arautzen duen lege dekretua aldatzeko Eusko Jaurlaritza berriari egindako eskaera. Gaur egun “ete-

kin pribatu handiak ematen dituen enpresa negozio” izateari utzi eta jantokia zuzenean kudeatu nahi duen eskola bakoitzak hala egiteko aukera izatea eskatzen dute, “beti ere eredu arduratsua, iraunkorra eta

konprometitua izatea lehenetsita”. Manifestua sinatu dutenen artean, EHIGE Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkartea, EKA Euskal Herriko Kontsumitzaileen Antolaketa, EHNE, ELA, LAB, ESK eta EILAS sindikatuak eta hainbat udal daude.

Jaurlaritzak 2000. urtean indarrean jarritako lege dekretuak bultzatzen duen eredia “catering enpresa handientzat” egina dagoela diote manifestuaren sinatzaileek, eta bestelako eredu bat proposatzen dute, “iraunkorragoa” eta lurrarekin eta herriarekin lotuagoa. Horrela, elikagaiak gertutasunez prestatzea, sasoiari sasoiko produktuak erabiltzea eta nekazaritza ekologikoa sustatzea dira eragile hauek jantokiak kudeatzeko bultzatzen duten ereduaren ardatz nagusietako batzuk.

Jantokien kudeaketaz Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bakarrik erabaki beharrean, beste alorretako ordezkariak ere parte hartu behar dutela uste dute eragileek.

Eskola laikoaren aldeko kanpainarekin bat egin du EHIGEk

Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkarreak bat egin du Europa Laica elkartearekin erlijioa eskola publikotik kanpo uzteko antolatutako kanpainarekin. *Eskola Publiko Laikoaren alde. Erlijioa eskolatik at!* manifestua zabaldu du elkarteak, eta atxikimenduak biltzen ari da Interneteko www.laicismo.org helbidean. Europa Laicak lau eskakizun nagusi egiten ditu: Vatikanorekin dauden akordioak bertan behara uztea, erlijioa kurrikulumentik eta es-

kola ordutegitik kanpo uztea, edozein erlijiotako sinbologiak presentzia instituzionalik ez izatea ikastetxeetan, eta diru publikorik ez erabiltzea ikastetxeetan adoktrinamendu erlijiosoa egiteko edota sexu, ideologia eta gizarte arazoien araberako bazterketa sustatzeko.

Eskola publiko, dohaneko, demokratiko eta laiko baten aldeko apustua egitea “desberdintasunak orekatu eta elkarbizitzan heztea ekarriko duen hezkuntza ere-

du integral bat lortzeko aurrepausoak bermatzea” dela nabarmentzen du manifestuak. Agiriak dioenez, “ikastetxeek ez dute bazterketa eta diskriminazio-gune izan behar, haurrak ezin dira bereiztu euren familien sinismenen arabera eta, ondorioz, erlijioa kurrikulumentik eta eskola eremutik kanpo geratu behar da, hezkuntza komunitate osoaren eskubideak errespetatze aldera”. Lorpen demokratiko eta sozialetan atzera egiteko arriskuaz ohartarazten du manifestuak, eta gizarte demokratiko eta sekular batek “ezin du onartu Estatu konfesional katoliko baten iragenera itzultzea”.

hizpide



Euskara ikasleak omenduko ditu Korrika Kulturalak, urtarrilaren 26tik aurrera

Bi urtez behin AEK-k antolatzen duen euskararen lasterketa handiak, Korrikak, Andoain eta Baiona lotuko ditu martxoaren 14tik 24ra bitartean. Martin Ugalde Kultur Parkean abiatuko da aurtengo Korrika, *Euskaldunon Egunkaria*-ren itxieraren 10. urtemugarekin bat eginez -kazetak parke horretan zuen egoitza-, eta 'Eman euskara elkarri' izango du leloa. Euskara euskal herritarren arteko "elkarbizitzarako gakoa" dela nabarmendu nahi dute Korrikaren antolatzaileek mezu horren bidez. Baina zapatilak jantzi eta euskararen aldeko izerdia botatzeko ordua iristen den bitartean, euskal kulturaz gozatzeko aukera aparta eskainiko du Korrika Kulturalak. Urtarrilaren 26an emango zaio hasiera egitarau oparoari, Usurbilen euskara ikasleei egingo dieten omenaldiarekin. Euskaraz bizitzeko egin hala egin duten eta egiten ari diren herritarrei gorazarre egingo die Korrikak. Egun horretarako sagardotegi erraldoi bat apailatuko dute Usurbilen, eta Esne Beltzak, aurtengo Korrikaren kantua egin duen taldeak, kontzertua eskainiko du. Horrez gain, 'Balitzen lihoa' eta 'Pisukideak' antzezlanak estreinatuko ditu Korrika Kulturalak; 'Zuzeneko instanteak' hainbat kantari eta musika talderi kontzertuetan ateratako argazkien erakusketak kolektiboak zabalduko du, eta horren harira mahai-inguruak, solasaldi musikatuak eta kontzertuak egingo dituzte; 'Lekukoaren bila' jinkana erraldoia antolatuko du; eta 'Gazta zati bat' film dokumentalaren musika taula gainera eramateko ikuskizun berezia eskainiko dute Xabier Solanok, Zigor Lamprek eta Jon Maia bertsolariak. Hori dena aurrera eramateko laguntza ekonomikoa behar du AEK-k. Korrika diruz laguntzeko, 'Korrika laguntzailea' kanpaina jarri du martxan. 12 euroren truke, pina, Euskal Herriko ehunka komertziotan beharpenak izateko aukera ematen duen txartela eta komertzioen katalogoa jasoko ditu Korrikaren laguntzaileak. Informazio gehiago: www.korrika.org


Ikastolen Elkarteko ikasmaterial berriak

Planteamendu pedagogiko sendo eta gaurkotuetan oinarritutako ikasmaterialen arloan bi nobedade plazaratu ditu Ikastolen Elkarteak: *Animalien alfabetoa* eta *Lehen ordenagailua*. 3 urtetik goragoko haurrentzat pentsatuta dago *Animalien alfabetoa* jolas interaktiboak, eta hizkuntza du elementu aipagarriena, hainbat audio euskaraz entzuteko aukera ematen baitu. Umeak entzun, behatu, ukitu eta erantzun egiteko aukera izango du, eta jarduera hauen bitartez eta jostailuak ematen dizkion eredu ugari eta aberatsei esker, hainbat konpetentzia garatuko ditu. Esaterako, pentsatzen eta ikasten ikasi (informazioaren interpretazioa), komunikatzen ikasi (ahozko hizkuntza), elkarrekin bizitzeko ikasi (pertsonekin arteko harremana), norbera izaten ikasi (nork bere buruaren estimua eta autonomia), eta egiten eta ekiten ikasi (informazioa hartzea eta sortzea).

Hiru eta bost urte arteko haurrentzat egin dago Lehen ordenagailua. Ordenagailu itxurako jostailu interaktiboak 32 orrialdeko koadernotxoak eta euskarri elektronikoa ditu. Haurrek atzamarrez markatu behar dute planteatzen zaizkien jardueren erantzuna; erantzuna zuzena bada, horrela adierazten dio ahots batek eta argi berdea pizten da. Erantzuna okerra bada, ahotsak beste saiakera bat egitera animatzen du.

izango da

Sare sozialek adingabeengan sor ditzaketen arriskuei aurre egiteko ikastaroa guraso eta hezitzaileentzat



Guraso, tutore eta hezitzaileei sare sozialek ezagutarazi, haien funtzionamendua azaldu eta adingabeengan izan ditzaketen arriskuen berri ematea helburu duen ikastaroa antolatu du Gipuzkoako Diputazioak. Horretarako, bideo tutorial bat jarri du In-

terneten, eta haren bidez “arazo honen parte diren sektoreek, gaiaren inguruko punturik garrantzitsuenak ezagutu ditzakete, adingabeak babesteko eta sarearen alde onak eta txarrak ezberdintzen laguntzeko”. Sare sozialek zertarako erabiltzen dituzten azaltzen duten gazteen testigantzak biltzen ditu bideoak, arriskuen berri eman eta haiei nola aurre egin erakusten du, eta cyberbulling edo jazarpen digitala ere jorratzen du. Arriskuen aurrean adingabeak hezteko irizpideak ere ematen ditu. Bideo tutoriala ikusteko saresozialaketaadingabeak.igipuzkoa.net helbidean sartu.

Pikler Loczy Institutuko bi ordezkariaren eta Laura Gutmanen hitzaldiak izango dira otsailean

Arietako Haur Eskolako Gurasoen elkarteak eta oraindik sortze bidean den Euskal Herriko Pikler-Loczy elkarteak autonomia sentimenduaren prestakuntzari buruzko jardunaldia antolatu dute otsailaren 23rako Lizarran (Nafarroa). Budapesteko Pikler Loczy Institutuko bi ordezkari gonbidatu dituzte antolatzailleek *Autonomia sentimendua sustatzen eguneroko egoeretan* izenburuko jardunaldian parte hartzera: Eszter Mozes eta Jutka Kelleman. Jardunaldiak harrera oso ona izan du, plaza guztiak dagoeneko bete egin baitira.

Bestalde, Laura Gutman Euskal Herrira etorriko da berriz ere hitzaldi bat ematera, MeitaiMaitie elkarteak gonbidaturik. Otsailaren 21 ean izango da, Donostiako Arantzazu hotelean, eta Gutmanek eskainiko duen hitzaldiaren gaia honako hau izango da: *El método de indagación personal basado en la construcción de la biografía humana*. Amatasun, haziera eta familia loturetan aditua da Gutman argentinarra. Hitzaldiak 3 orudko iraupena izango du, 17:00etatik 20:00etara. Informazio gehiago: www.meitaimaitie.com.



Euskal Herria 11 Kolore sortu dute, jatorri aniztasuna babesteko

Euskal Herriko herritar guztien eskubideen, betebeharren eta aukeren berdintasuna babestea, haien jatorria edozein izanda ere, da Euskal Herria 11 Kolore egitasmo sortu berriaren ardatzetako bat. “Denok batera bizitzen, sentitzen eta egiten dugu Euskal Herria. Denok gara Euskal Herria”, adierazi dute herri ekimenaren sustatzaileek. Jatorri aniztasunak euskal kulturari eta gizarteari ekarrikodion aberastasuna du abiapuntu egitasmoak, eta gizarte eragile nahiz erakunde ororen parte hartzeari irekita dago. Dagoeneko hainbat dira ekimenarekin bat egin duten kultura munduko, sindikatuetako, heziketa arloko eta beste eremuetako pertsonak. Jatorri edo nortasun arrazoiengatik izan daitekeen edozein diskriminazio arbuiatu eta hura gainditzeko lan egingo du Euskal Herria 11 Kolorek. Euskal herritarren arteko topaketa, elkarrekintza eta elkarlanerako esparruen alde lan egingo du, eta hainbat jatorritako herritarren arteko lokarria euskara izatea bultzatuko du.

GAIA

Espazioen antolaketa

Haurraren autonomia garatzeko



Joxe Ramon MAUDUIT, Mari Jose AROZENA, Rosa VIDIELLA eta Kristina GOÑI.



Umearen beharrak, gaitasunak eta garapen ebolutiboa aintzat hartuko dituzten haur eskolak diseinatzeko, hainbat gako eman zituzten “ESPAZIOEN antolaketa haurraren autonomia garatzeko” jardunaldietan Joxe Ramon Mauduit psikologo eta prebentzioan adituak, Rosa Vidiella i Badell psikopedagogo eta espazioetan adituak eta Kristina Goñi eta Mari Jose Arozenak, hurrenez hurren, Baztan eta Oiartzungo Udal Ikastola Partzuergoko zuzendariek. Haur eskolara joan aurretik, umeak iragaiten dituen espazioen berri eman zuen Mauduitek, kokagune bakoitzeko esperientziaren arabera egiten baitu hurrengo espaziora iristeko urratsa. Aroz aro ardatz hormonalak, afektiboa eta korporala presente izan behar direla azaldu zuen.

G

Espazioak haurraren garapena eta autonomia lagundu edo oztopatu dezake, diseinu eta antolaketa egokiaren edo okerraren arabera. Halaxe ikusi genuen **hik hasi** aldizkariaren 173. zenbakian, Lorea Jauregi irakaslearen tesiaren inguruan egindako erreportaian. Eta baita **hik hasi** antolaturiko Haur Hezkuntzako jardunaldietan ere, azaroan, Durangon eta Donostian, *ESPAZIOEN antolaketa haurraren autonomia garatzeko* izenburupean egindako jardunaldietan. Alabaina, espazioak haurrak bere autonomia gara dezan egokitzeke, lehenik eta behin, umearen beharrak, gaitasunak eta garapen ebolutiboa oso ondo ezagutu behar ditu hezitzaileak. Joxe Ramon Mauduit psikologo eta prebentzioan adituak haurraren garapena zer nolakoa den azaldu zuen, espazioak bilakaera horren beharretara egokitu eta antolatu ahal izateko.

Haurtzaroari, eta, ondorioz, Haur Hezkuntzari, berebiziko garrantzia ematen dio Mauduitek. Bere aburuz, pertsona heldutasunera ondo irits dadin, umezaroan ezari behar dira oinarriak, prebentzioa landu behar da, ondoren traumarik edo gaixotasunik tratatu beharrik ezizateko. Horretarako, txiki-txikitatik umeak dituen gaitasunetan sinestu behar dela dio, “historikoki, haurtxoak batez ere, pasibo, ez sozial eta autista biologiko gisa hartzen ziren interakzioarekiko; gaur egun, ordea, badakigu jakin ere, haurtxoak hautematen duela, komunikatu egiten dela, soziala dela, besteekiko lotzen dela, intersubjektiboa dela, autoerregulatua eta auto-organizatua dela”.

Abiapuntuan, beraz, haurraren gaitasunetan konfiantza eduki behar dela dio psikologoak, baina baita hezitzaileak ere bere buruarengan: “Hezitzaileak eduki dezala konfiantza eta autoestimua bere buruarengan, eta gabeziaren bat edo mugaren bat dugunean, irtenbideak bilatu beharko ditugu, beste hezitzaileekin hitz eginez soluzioa bilatuko zaio egoerari, hezitzaileek dituzten beharrak, arazoak eta kezkek mahai gainean jarritz; hori egin ezean, guk ezartzen dugun koraza edo eskolak —nork bere buruaren

defentsarako sortzen duen oskola psikiko eta gorputzekoak— haurraren garapena eta gaitasuna mugatu eta murriztu dezakeela presente eduki behar dugu beti”.

Nor bere lekuan kokatzen hasteko, hezitzailearen rolaz eta gurasoenaz hausnarketa txiki bat egin zuen Mauduitek, ondoren espazio desberdinei buruz mintzatzeko. Haurraren garapenean eta bilaketan haren lagun egitea da hezitzailearen egitekoa, Mauduiten arabera: lagun egitea eta jarraipena egitea. Haur eskolako hezitzaile guztiek irizpideak bateraturik eduki behar dituztela nabarmendu zuen. “Hezitzaileen lana baina, ez da haurraren mugatzen”, gurasoak ere oso kontuan izan behar ditu, Mauduiten irudiko, “hezitzaileak adostuak dituzten irizpideak azaldu behar dizkio gurasoan”. Horrez gain, eta gurasoei begira baita ere, psikologoak ikusten du hezitzaileak ekarpen handia egin dezakeela berak izan dezakeen informazio guztia gurasoei zabalitzen eta sentibilizatzen; eta informazioa beste norabidean etortzeak ere, hau da, aita-amek euren haurrari buruz duten informazioa hezitzaileari emateak ere, gauzak asko errazten dituela azaldu zuen prebentzioan aditua den psikologoak.

Gurasoen esku hartzeari dagokionez, haurraren garapenean zeharka esku hartu behar dutela dio, garai bakoitzean haurra nondik lagundu behar duten jakin behar dutela —barrenetik lehenengo, ondotik gero, eta atzealdetik hirugarrenik—. Guraso izateko egitekoan, aitek eta amek, gaur egun, laguntza behar dutela nabarmen du psikologoak, bakardadean ezin baitute hausnartu gertatzen zaien horri buruz. Horregatik, bere hitzaldi osoan nabarmendu zuen hezitzaileen eta gurasoen arteko komunikazioaren garrantzia: “Haurrak hezitzailea erreferentziazko pertsonatzat har dezan, errespetuzko heziketa nahi badugu, gurasoen eta hezitzaileen arteko komunikazioak aberatsa eta konfiantzazkoa izan behar du, horrek segurtasuna eta lasaitasuna emango baitizkio umeari”.

Haurraren autonomia garatzeko espazioa

“Ezin da espazioa antolatu eta diseinatu haurraren garapena eta premiak ezagutu gabe”, adierazi zuen Mauduitek, hitzaldia- ren sarreran. “Haurra kontuan izan behar da, bada, haur eskolako espazioak diseinatu eta antolatzeko garaian, bere gorputza nola osatzen ari den ezagutu behar da, tokiak umearen heltze prozesuari erantzun behar baitio”. Haurraren garapenari buruzko ezagutza beharrezkoa da, beraz, espazioaz hausnartzeko eta, horretarako, haurra bera behatzeak emango dio helduari informazio handiena, haren adierazpenak entzunez —hitzezkoak nola gorputzezkoak— erantzun ahal izango die ondoen haurraren premiei, eta egokitu ahal izango du ondoen bere eskura dagoen espazioa.

Haurraren garapenari eta premiei dagokienez, kontuan izan beharreko hiru ardatz edo behaketa-gune aipatu zituen hizlariak. Hezitzaileak garai desberdinetan oso kontuan izan beharko dituen hiru ardatz dira:

-Ardatz hormonal: ingurune, elikadura eta estimulazio egokia behar da hormonen jarioa egokia izan dadin. Hipotalamoak eta glandula pituitarioak hainbat hormona jariatzen dituzte. Hipotalamoak garunean kokatzen da, eta nerbio-sistema autonomoaren funtsezko egitura da.

-Ardatz afektiboa: umeak behar afektiboak aseak izan ezean zail izango du aurrera urratsak egitea. Behar afektiboa, lehenik eta behin, gurasoek aseko diote, haien bidez egingo baitu munduranzko sarrera. Haur eskolan, ordea, ardatz afektiboari loturiko premiak kontuan izan behar ditu hezitzaileak, eta haurra hartzeko, tratatzeko eta ukitzeko modua, hau da harremana, zaindu egin beharko du adin guztietan. Harremana loturak eta banatzeak osatzen dute, eta bi alorrak zaindu behar ditu helduak. Haurraren eta helduaren arteko harremanaren eta egoera psikoafektiboaren inguruan kontzientzia handia eduki behar dela dio Mau-



Joxe Ramon Mauduit, Donostiako jardunaldian.

duitek, haurrak sentitu egin behar du bere ingurunean kontuan hartzen dutela eta errekonozitua dela.

-Ardatz korporala: hezitzaileak uneoro kontuan izan behar du haurra —haren gorputza— osatzen eta hazten ari dela. Jaiotzen den unetik beretik nerbio sistema garatzen ari dela, eremu motorra, zentzumen guztien eremua —ikusmena, usaimena, entzumen, ukimena eta dastamena— lantzen ari dela, baita mintzamenarena eta eremu psikomotorra ere; hezur egitura osatzen ari dela kontuan izan behar da, eta integrazio sensoriala bizitzen ari dela, hau da, ingurunetik eta gorputzaren esperientziatik datozen sentazioak ulertzen eta ordenatzen ari da haurra, eta osoki, gorputz eta buru, hurrengo urratsak emateko prestatzen ariko da. Hasieratik beraz, garapen integratua bizi izan dezan, aukerak eman behar zaizkio ume jaio berriari.

Haur eskolako espaziora iritsi aurretik, umea hainbat espaziotatik igaroko da, eta espazio bakoitzeko esperientziak hurrengoaren aurrean kokatuko du; horrela joango da haurra, umetokiko espaziotik haur eskolara eta gero mundu zabalera, kokapen bat bilatzen. “Munduan norbere lekua bilatzeko eta norberak egoki ikusten duen espazioa betetzeko, arreta eta maitasuna behar ditu umeak jaiotzen den unetik beretik”, Mauduitek arabera. “Haurra bere garapenaren protagonista izan behar da, bere gorputzaren bizipenak sentitu, behatu eta integratu behar ditu, horrek lagunduko dio ekintzak ulertzen eta kokatzen”. Mauduitek espazioaren inguruko hausnarketa bizitza esperientziarekin lotzen du erabat: “Gutako bakoitzak munduan lortu duen espazioa gure haurtzaroko esperientziaren arabera da. Garrantzitsua da barne-espazioa (gorputza eta bere bizipenak) eta kan-

GAIA

ESPAZIOEN ANTOLAKETA Haurren autonomia garatzeko

po espazioa esploratzea, haurren nahiak eta erritmoak errespetatuz”.

Bost espazioen berri eman zuen psikologoak, haurrak bere bizitzako lehen hiru urteetan bere izate eta pertsonaren oinarriak ezarriko dituen urteetan igaroko dituen espazioak.

Lehen espazioa: utero barrukoa

Umeak bizi eta sentituko dituen lehen esperientziak utero barrukoak dira, eta esperientzia horrek, dagoeneko, ondorioak izan ditzake, esaterako, esperientzia estresatu bat bizi duenean. Beraz, utero barruko estresa saihestea izango da lehen egitekoa, ama —bikotea— lasaitasunera eta arnas erritmo egokietara ekarri. Amaren gorputza haurrari leku egiten ari zaion bezala, gurasoek ere, sinbolikoki, aurki jaioko den haurrari lekua egin behar diote, habia prestatu behar dute. Etapa honetan gurasoek euren emozioei arreta jar diezaieten gomendatzen du, datorrenaren aurrean konfiantza eduki dezatela gurasoek.

Garai berean, uteroz kanpoko lehen espazioa izan behar dena prestatu behar dute gurasoek: etxea. Horixe izango da haurrak lehenengo esploratuko duen lekua. Habia-aren goxotasunari lehentasuna eman behar diote gurasoek, intimitatea eta komunikazioa erraztuko dituen lekua izan behar du, eta estimulu maila haurren mailara eta gaitasunera egokitu behar da. Lehen erreprezentazio espaziala etxean bertan egingo du haurrak eta, horregatik, oso inportantea da etxea ondo ezagutzea, eta etxeko gauzetan parte hartzen uztea eta integratua sentiaraztea.

Bigarren espazioa: erditze-jaiotzearen esperientzia

Oso ondo zaindu beharrekoa da erditze-jaiotzeko esperientzia, kasu askotan esperientzia horretako ondorio negatiboak arrastaka eramaten baitituzte umeek, trau-

ma gisa, erditze zailen ondorioz, baina baita gurasoek ere —bereziki amek—; une horretako esperientzia bat edo beste izan, sarri jarrera bat edo beste hartuko dute, jarrera protekzionistagoa adibidez. Erditzea ezagutzeak, beraz, haurrari buruzko informazioa eman dezake zenbait kasutan.

Behin haurra munduratutakoan, haurraren eta gurasoen erritmoak uztartzea izango da lehen egitekoa, lehen harremana finkatzea. Gurasoen lasaitasunak konfiantza emango dio haurrari, mundua ezagutzen eta munduarekiko konfiantza hartzen hasten baita lehen hilabeteetan.

Hirugarren espazioa: 3. hilabetetik 9. hilabetera

Haurra oraindik ere garatzen ari da. Azken zerbikalak garatuko ditu etapa honetan, eta, era berean, integrazio sensoriala landuko du, begien eta eskuen arteko koordinazioa lantzen ari baita. Fase honetan lurrak duen garrantzia nabarmendu du Mauduitek: “Lurra garrantzizko erreferentzia bihurtuko da, lurraren bitartez kokatzen baitute haurrek beren bertikaltasuna. Lurrarekin kontaktuan delarik, gorputza biratzen hasiko da haurra, eta aurrera eta atzera arrastan ibiltzen, esertzen eta lau hankatan ibiltzen gero”. Lurrak egokia izan behar du horretarako.

Haurra hirugarren etapan honetan dagoenean hasten da, kasu askotan, haur eskolan. Mauduitek ohartarazten du, alabaina, haurraren heldutasun-premia ez datorrela bat ingurune berriak eskatzen dion heldutasun mailarekin. “Oso ondo zaindu behar da egokitzea, haurrak amarengandik banatzean aldaketa bortitzik jasan ez dezan”. Familiaren eta haur eskolaren arteko koordinazioa, komunikazioa eta konfiantza beharrezkotzat jotzen ditu egokitzen hori egokia izan dadin.

Etxetik haur eskolara igarota, han ere lurrak garrantzia izan beharko lukeela dio

Mauduitek. “Lurra erreferentzia izango da, haurrak beren mugimenduak koordinatzen hasten dira, eta organoak ere beren lekuan jartzen joango dira. Aukera ematen baldin bazaio, haurra bere gaitasunak garatzen hasten da”. Aukerak ematea espazioak prestatzea da, bere mugimendua egiteko eta gorputza osatzeko aukera emango dituen espazioak prestatzea. Haurrak etzaulkietan geldi eduki beharrean, lurrean edukitzeak umeek senti dezaketen eta hezitzaileek transmititu diezaiaketen estresa saihesten duela azaldu zuen Mauduitek. “Haurrak lurrean gaitasunak abian jartzen ditu, eta baita ikertzeko gaitasuna ere; eta noski, lasaiago egoten dira egoera horretan”.

Laugarren espazioa: 9.etik 36. hilabetera

Haurraren garapenari dagokionez, garai honetan gorputz-egituraren koordinazio globala lantzen ari da haurra, gerri-ornoen, pelbisaren eta hanken egituratze bioenergetikoa garatzen ari da, esfinterra kontrolatzeko gaitasuna garatuko du, eta sexu-organok erantuz joango dira. Lau hankatan ibiltzetik, apurka-apurka, kukubilko egotera igaroko da, bi hanken gainean egotera gero, eta oinez eta korrika egiten hasiko da ondoren.

Haur eskolako espazioan egonagatik ere, ardatz afektiboa ez dela ahaztu behar dio psikologoak. Ardatz afektiboa, lehenik eta behin, amak eta aitak osatuko diote, eta ondoren, gurasoengan duen segurtasun hori guztia hezitzailearengan erreflekturik ikusiko du umeak, gurasoen eta hezitzaileen artean komunikazio ona dagoela sentitzen duen neurrian. Haurrentzat haur eskolako esperientzia gogorra izan ohi da, ez soilik gurasoen eskutik hezitzaileen eskuetara igarotzen delako, baita beste haurrekin elkarrekintzan hasten delako ere. Haurrak etxean hainbat gaitasun dituela frogatu badu ere, haur eskolan besteen esperientziak ikusten ditu, eta sarri konparazioan sentitu-

Haurren autonomia garatzeko espazioa

ko da, besteek egiten duten hori ezin dutela egin sentituz. Hori izaten da haur eskolara ez joan nahi izateko arrazoietako bat; etxean seguritatea eta konfiantza berreskuratu ostean itzuli ohi dira gustura haur eskolara. “Baina gurasoek eta hezitzaileek tarte hori errespetatzen ez badute, estres uneak bizi izaten ditu umeak”.

Garai honetan haurrak bizi duen aldaketa oso handia denez, etxean gertatzen dena eta amatasuna bera ulertzea eta babesa ematea eskatzen die hezitzaileei. “Umea ondoen bere gurasoekin dagoela ulertu behar dugu; beraz, hezitzaileak oso gertu egon behar du gurasoengandik”.

Bosgarren espazioa: 36. hilabetetik aurrera

Etapan honetan ama inkorporatua dauka haurrak dagoeneko; “ama, zu gelditu etxean” esaten hasten den garai hori izan ohi da, hau da, sozializazio garaia.

Mauduitek azaldu zuenez, haurra espazio berrietara ondo egokituko da, unean uneko kokapena ondo egiten bada, hau da, bere oinarrizko premiak ondo ase baldin badira, eta bere gorputza eta ingurua esploratzeko aukera eman baldin bazaio. “Biziaren hasiera-hasieratik, esperientzia bakoitza ondo integratuz joan den neurrian emango du hurrengo espaziora bidean urratsa”.



Baztango haur eskolan, umeak, familiak eta hezitzaileak elkartzeko plaza dute sarreran.

Elizondon eta Oartzunen, arkitektura proiektu pedagogikoaren laguntzaile

Espazioen antolaketari buruzko jardunaldietan, Euskal Herriko bi haur eskolako esperientziak ezagutarazi zituzten, Oartzungo Udal Ikastola Partzuergoko haur eskolako eta Baztangoa. Biek ala biek espazioa proiektu pedagogikoaren arabera diseinatu eta antolatu dute, hezitzaileek eta arkitektoek elkarrekin egin baitute lan haur eskola berriak eraikitzeko garaian, eta baita bi herrietako udalek ere.

Baztango haur eskolaren esperientzia aurkeztu zuen Kristina Goñi zuzendariak. Elizondon kokatua dagoen haur eskola honen abiapuntuan hiru gako daude, Goñik azaldu zuenez. “Batetik, arras ongi pentsaturiko proiektu pedagogiko bat; udalaren konfiantza osoa eta beste hainbat proiekturen ezagutza”; Reggio Emiliako udal haur eskolak ezagutu zituzten, baina baita Euskal Herriko beste zenbait ere. Abiapuntu horrekin eta “borondate izugarrikoarekin” hezitzaileak, udala eta arkitektoak elkarlanean hasi ziren.

“Umeak zoriotsu izango ziren leku bat” nahi zuten hezitzaileak, euren beharrik —loa, jana, komunekoak...— asetzen

lagunduko zien espazioa, irakaskuntzarako eguneroko ohiturak oso inportanteak direla ikusten baitute hezitzaileek, baina baita aske mugitu ahal izango zuten leku bat eta bakoitzari bere nortasuna lantzeko eta garatzeko aukera emango zion eskola. Familiei leku egingo zien eskola bat nahi zuten, halaber, eta gardena izango zena.

0-3 urte bitarteko haurrak hartzen dituzte, Nafarroako haur eskola gehienek bezala, eta adinaren arabera bereizten dituzte geletan. Hezitzaileek bikoteka egiten dute lana talde pedagogikoan. Umeentzat, hezitzaileentzat eta gurasoentzat plaza bat dute eskolako sarreran eta, gelez gain, bi tailer dituzte, eta horietan esperientziak eskaintzen dizkiete umei, baina jarduera horiek ez dizkio hezitzaileak gidatzen, “gure lana tailerra prestatzea da, estetiki erakargarria izatea, baina umeak aukeratuko du zer egin, nola landu bere kreatibitatea”. Tailerrez gain, haurren nortasuna lantzeko eremu berezituak dute, non argiarekin eta itzalekin jolas handiak egiten dituzten.

Altzariei dagokienez, gutxi baina arras ongi pentsatuak eta eurek diseinatuak jar-



GAIA

ESPAZIOEN ANTOLAKETA Haurren autonomia garatzeko



Goian eta behean Baztango haur eskolako barruko eta kanpoko espazioak.



Oiartzungo Haur Ikastola Partzuergoko barruko espazio bat goian, eta behean, uraren txokoa.



tzea erabaki zuten, funtzionalak, eta haurrei mugitzeko eta arakatzeko aukera emango dietenak, eskailerak eta aldapak dituztenak.

Kanpoko espazioari ere garrantzia handia ematen diote, paraje berde ederrean baitago kokatua haur eskola. Belardiz inguratua eta malda baten ondoan, plastikozko elementurik ez jartzea erabaki dute, elementu naturalak lehenetsiz.

Oiartzungo haur eskola berriak urtebete dauka, eta berau diseinatzeko garaian ere hezitzaileen proiektu pedagogikoa oso kontuan izan zuen Ager Iñarra arkitektoak. Kasu honetan ere, arkitektoaren prestasunaz gain, udalaren jarrera ere giltzarri izan zen haur eskola berria eraikitzeke garaian.

Oiartzungo Haur Ikastola Partzuergoaren barruan dago zentro berria, eta herrian banandurik dauden beste hiru zentroetako

proiektu berbera jarraitzen du. Guztietan 0-3 urte bitarteko haurren heziketaz arduratzen dira, zikloa ez haustea eta bere horretan mantentzearen aldeko apustua egin baitzuen udalak, eta gainera, ratioak ohikoak baino txikiagoak dira.

Haur eskola berria eraikitzeke garaian, Oiartzunen ere proiektu pedagogikoa izan zuen lehentasuna, Mari Jose Arozena zuzendariak azaldu zuenez, eta hango hezitzaileen urte askotako eskarmentua nahiz Euskal Herriko hainbat zentrotara eginiko bisitak (Iruñeako udal haur eskoletara, Lazkaokora, Pasaiaokora...) lagungarri izan ziren espazioa diseinatzeko garaian.

Lehenik eta behin, kokagunea bera da aipatzeko, goizeko eguzkiari garrantzia eman baitiote, eta horregatik, eki-hegoaldera biratua dago eraikina. Inguruneari dago-

kionez, barrukoari bezala, kanpoko antolatetari garrantzia handia eman diote, eta haur txintxarra, egur enborrak, hondar eremua eta uraren txokoak dituzte haurrek esploratzeko eta jolasteko. Ondoan, gainera, malda dute, eta leku garrantzitsua bilakatu da berau umeentzat, baratzea bezalaxe. Ingurunea ordea, ez da bukatzen haur eskolako atarian, haur eskola kanpora ateratzeko filosofiarekin lana egiten baitute guraso eta hezitzaileek, herrira, sorotara eta auzoetara zabaldu nahi baitute proiektua.

Barrualdeari dagokionez, plaza edo sarrera nagusi batek hartzen ditu umeak, hezitzaileak eta gurasoak, eta bertatik sukaldaria ere gerturatu litezke, sukaldaria ikastolako gune garrantzitsua baita, eta haurrek eta familiek sukaldariekin komunikazio zuzena dute.

rosa vidiella i badell



ELKARRIZKETA

Hezitzaile espezializatua eta pedagogoa

“Haur eskolak familiaren osagarri izan behar du, ez ordezeko”

Haur eskolak haurren etxeak izan daitezten lan egiten du Rosa Vidiella i Badell hezitzaile eta pedagogoak, Katalunian. Haurren behaketatik abiatzen du bere lana, Pikler-Loczy institutuaren oinarriekin bat eginez. Haurrari erabateko askatasuna eta segurtasuna emango dioten espazioak antolatzen eta diseinatzeko laguntzen du, hori baita, bere aburuz, hezitzailearen egitekoa: haurrak laguntzea eta inguruneak hornitzea, aspertu ez daitezten, garatu daitezten, bilatu eta probak egin ditzaten. Haur eskolako espazioek, halaber, hezitzaileen premiak ase behar dituztela dio, eta familiei ere leku egin behar dietela.



Haur eskoletako espazioaren antolaketa eta diseinuaz hitz egin aurretik, lehen urteetako eskola-sistemaz zer iritzi duzu?

Ez gara gauzak ondo egiten ari, gizartea ez da ondo egiten ari. Umeak eskolara bidalitzeko familien arazoak konpontzen ari ginela pentsatu dugu —begi bistakoa da haurarentzat askoz hobea dela familiak ahalik eta arazo gutxien izatea— eta lortu duguna da, orokorrean, familien eta haurren arteko harremana murriztea. Eta hori oso txarra da. Haur eskolek familiaren osagarri izan behar dute, ez ordezko. Batzuetan argudiatzen dugu gurasoek nahikoa lan dutela lanpostuari eusten, baina ez, hori ez da nahikoa, eskolek familia ordezkatu behar dutela argudiatzea, oso jarrera berekoa iruditzen zait. Mundu guztiak nabarmentzen du bizitzako lehen hiru urteak zein garrantzitsuak diren, baina gaur egun gauzak egiten ari garen bezala, ez dira haurren beharrak kontuan hartzen.

Zergatik diozu hori?

Haurrek lehen hiru urte horietan inoiz baino gehiago behar dituzte helduak. Baina askotan objektu bezala tratatzen ditugu, leku batean utzi edo ukitu egiten den objektu bezala. Haurrek beren familiaren beharra dute. Haur eskolaren defendatzailetzat dut neure burua, baina ez eskola gisa, familiaren espazio osagarri gisa baizik.

Ikusi dudanean arabera, umetxoek bakarrik daudenean harreman mota bat ezartzen dute euren artean. Ondorioz, parekoen arteko heziketa jaiotzetik bertatik garrantzitsua dela pentsatzen dut, baina kontuz, umetxoek ez dute parekoekin familia-

rekin baino denbora gehiago pasa behar. Denbora gehiena familiarekin pasa behar dute, eta parekoen arteko harremana pixkanaka eraiki behar da, hasieran ordu gutxi batzuk eta beti senideak inguruan dituztela. Umeak lehenengo ikusten du bere familia duela, eta, gero, beste ume batzuk ezagutzen ditu, eta objektuak; buruari buelta emanda gurasoak gertu ikusten dituen neurrian hartzen du beste umeengana joateko segurtasuna. Eta, nahi duenean, familiarengana itzultzen da. Bereizketa prozesua berezkoa da, eta iristen da une bat zeinean umeak ez dion familiari gehiago begiratzen eta hura gabe ordu batzuk pasatzeko gai den. Haatik, gaur egun, oraindik hainbat haur eskolatan maisu-maistrak behartuta daude umeak gurasoen besoetatik kentzera, ez egun bat edo bitan, harik eta umeak ulertu baino gehiago amore ematen duen arte. Bizitzari ekiteko abiapuntu txarra da, nire iritziz.

Beraz, ez dut onartzen haur eskola familia ordezkatu dezakeen instituzio gisa ulertzea, ezta familiatik kanpoko pertsonen ordezkatzera ere. Gaur egun, bereziki auzo aberatsetan, haurrak ume-kotxetan lotuta joaten dira, kultura berekoak ere ez diren pertsonen lagunduta; gurasoek iluntzean baino ez dute ikusten haurra, eta ez da inolako harremanik sortzen haien artean. Harreman bakarra beren onena emateko ahalegina egiten duten pertsona horiekin du umeak, baina haurrak beste haurren beharra ere badu.

Zure esanetan, umeak maitatzen ditugu, baina ez ditugu aintzat hartzen.

Nire asmoa ez da inori errua botatzea. Guraso taldeetan abandonuaren gaia azaltzen denean, jendea errudun sentitzen da, eta horrek ez du ezer konpontzen. Baina merezi du gogoeta egiteak, haurren eskubi-deen aldeko borroka hobeto bideratzeko. Borrokaren oinarrian gurasoek haurrekin denbora gehiago egoteko esijentzia dago, eta gizartean, sindikatuetan eta enpresarien artean eman behar den borroka da.

Wert legearen zirriborroa denon ahotan da orain. Eskola-uzteak eta azterketetako emaitza txarrak aitzakia gisa erabiltzen ditu ministroak bere burua babesteko. Eta hezkuntza lege baten bidez dena aldatu nahi

rosa vidiella i badell

E

“Gurasoak huarrekin denbora gehiago egoteko exigentzia gizartean, sindikatuetan eta enpresarien artean eman behar den borroka da

”

“Familian deskubritu ezin dituzten gauzak deskubritzeko haurrek duten espazioa da haur eskola

”

du, baina legearen beraren oinarriak dira okerrak, ez dituztelako haurrak aintzat hartzen. Helduok lege edo programen bidez erabakitzen dugunaren aurrean errenditu egiten dira zenbait haur, eta gainerakoak bazterrean geratzen dira. Umetxoetatik hasten da hori. Lehenengo urratsa da familiarekin lotura sendo bat eraikitzea. Bigarrena, beste umeekin egotea bizitzaren lehen hilabeteetatik, ondo zainduta, beste haurrekin pasatzen dituzten ordu horiek atseginak izan daitezten familiarekin haurrak nola ukitu eta nola bizi hitzartu duten profesionalak lagunduta. Eta horri guztiari jarraipena eman behar zaio Haur Hezkuntzan; baina hor ere ez dituzte haurrak ondo ulertzen, komeniko litzateke gizatasun handiagoz jokatzea Haur Hezkuntzan. Eta, ondoren, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan.

Nire ustez, dena dago gaizki enfokaturik, baina batez ere hasiera. Haur batzuk errendituko dira edo ez, porrot egingo dute edo ez, bilatuko dute zertan lan egin, edo gizarteak baztertuko ditu. Baina haurtxoek ezinbestekoa dute munduari aurre egiteko segurtasuneko oinarri sendoak eraikitzea. Eta iruzur egiten ari gataizkie.

Oinarriak gaizki ikusten dituzu? Zimenduetatik hasi, eta gizartearen lehentasunak berriz antolatu beharko genituzkeela uste duzu, haur eskola familiaren espazio osagarri gisa planteatuz eta ez familiaren ordezkotzat?

Hezkuntza sistema osoa behar da irauli, baina txikienen eskubideetatik hasi behar da, batez ere.

Familian deskubritu ezin dituzten gauzak deskubritzeko haurrek duten espazio antolatua da haur eskola. Espazioak berak eta ondo prestatutako profesionalen erantzunak laguntzen diote haurrari deskubrimenduak egiten.

Haur eskola eta espazio familiarrak demokrazia, giza eskubide eta elkarbizitzari buruzko lehen eskola izan ohi dira. Ondo antolatutako haur eskoletara joaten diren guraso askok, gero jarrera aldarrikatzailea eta arduratsua erakutsi ohi dute seme-alabak Haur eta Lehen Hezkuntzan daudenean, profesionalen lan egiteko moduz jakin nahi izaten dute, parte hartu nahi izaten dute... Hain zuzen ere, eurak ikasle zirelarik

jaso ez zituzten irakaspenak jaso baitituzte euren umeen haur eskoletan: norbere eskubideak defendatzen jakin, izpiritu kritiko eta ez menpekota izan, aske sentitu eta munduak eskaintzen dionari segurtasunez eta ezagutzaz erantzuten jakin...

Haurraren premiak behar bezala asetzeko, zer hartu behar dugu kontuan haur eskolan? Zein da abiapuntua haurrak aske eta beren bizitzaren protagonista senti daitezten?

Haurrak behatzea. Hori da nire eskola oraindik ere. Umeek jaiotzen direnetik adierazten dituzte gauzak, baina ez diegu beti behar bezala erantzuten, baizik eta guk uste dugunari egiten diogu kasu. Haur txikiei entzuteak eta behatzeak argia ematen digu jakiteko nola erantzun hitzen, begiraden edota keinuen bidez. Entzunak sentitu behar dira, eurek adierazten dutena interpretatzeko gaitasunik ez baitugu. Egozentrikoak gara, eta pentsatzen dugunari egiten diogu kasu helduok. Ez dugu arretarik jartzen haurrak esaten digun horretan.

Batzuetan, familiek libertinajeari dioten beldurra dago beste aldean. Ni haurren erabateko askatasunaren aldekoa naiz, eta helduak haren askatasuna lagundu eta gidatu behar duela pentsatzen dut. Une jakin batean askatasun horrek ondorio txarrak ekartzen badizkio haurrari, helduak gidaritza eskaini behar dio baliabideak sortu eta antzeko egoeretan erabiltzeko. Horiek dira mugak, niretzat. Txikitatik ezezko eta ohar-tarazpen ugari jasotzen dituzte haurrek, baina askatasunetik ikasten dira mugak, askatasunik gabe ez dago mugak zein diren ikasterik. Askatasunik gabe, helduek jarritako baldintzei izkin egiten ikasten du umeak. Beraz, askatasunak du lehentasuna, eta beharrezkoa denean bakarrik jarri behar dira mugak. Ez da teoria huts bat, behatzaile gisa izan ditudan esperientzietan oinarritzen naiz hori esateko. Umeak leialtasunez eta errespetuz tratatzen dituzten hainbat leku ezagutu ditut, eta baieztatuta dago egiteko modu horrekin umeak osasuntsu, irizpidedun eta ausart hazi daitezkeela. Horregatik oinarritzen naiz askatasunerako eskubidean.

Hori bai, honek soilik balio du helduok kontsekuenteak izanez gero. Presente bal-



din bagaude. Ez du balio oihu egiteak, txantxia egiteak, errieta egiteak edota zigortzeak; baiezkoa edo ezezkoa segurtasunez esateak balio du, eta kontsekuente izateak baiezko edo ezezko horrekin. Umeek hitz egiten ikasi baino lehenagotik ulertzen dituzte gure pentsamenduak. Horregatik da hain garrantzitsua esaten, egiten, adierazten duguna. Ondo eginez gero, heldua ere hazi egiten da, zalantzan jarri behar duelako bulkadaz ateratzen zaion guztia. Txikitan barneratutakotik, gogoetatu gabe oinordetzan jasotakotik sortzen da bulkada. Baina gogoeta egin eta erantzuna aukeratzen badu, hurrei erantzuna ematen dien aldi berean bere burua eraikitzen ari da heldua.

Zuk askatasuna aipatu duzu, baina txiki-txikitatik, lotu egiten ditugu, hamakatxoetan ezartzen ditugu...

Hori da. Non dago askatasuna? Amaren sabeletik ateratzen denetik bi jarrratan egon beharko luke umeak: bata, besotan bilduta, jarrera semi-fetalean, umetokian zuenaren antzekoa, helduari begiratzeko eta seguru sentitzeko aukera ematen dio. Bigarren jarreran, helduak esku bat buruaren azpian jarriko lioke eta bestea, ipurdiaren azpian. Hasieran bizkarrez eta azal lauaren gainean jarri beharko genuke hau-

rra. Eta lehen hiru hilabeteetatik aurrera, azal gogorren gainean, eta ondoren lurrean batez ere, bizkarrezurrak lurrarekin kontaktatzen du, grabitatearen ondorioz. Hori da mugimendu guztien abiapuntua, modu naturalez sortuko dira besteak, grabitatearen legeagatik. Hortik artikulatzen da beste guztia: tendoiak, hezurak, artikulazioak... dena koordinaturik dago. Mugimendu horiek guztiek, arkaiko eta nahi gabekoez zein nahita egindakoez, mundurantz abiatzeko askatasuna ematen diote haurrari. Eta ondoren iritsiko da beharrezkoak dituen posturera: buelta eman, hankak bildu, eseri, zutitu eta ibili. Mugimendu asketik abiatuta haurrak eraikitzen duen guztiak burmuinaren eraikuntzarekin zerikusia du. Psikomotritzitatea deitzen diote, hitz majikoa da. Espazioak eta materialak eskatzen dituela ematen du, baina haurraren lehen hiru urteetako bizitza baino ez da.

Gaur egun psikomotritzitatea lantzeko gelak daude, astean hainbat orduz eramaten dituzte haurrak psikomotritzitatea lantzerako... Horrela landu beharko litzateke?

Lehen hiru urteak dira psikomotritzitatearen aro nagusia: edozein mugimenduk zerikusia du burmuinaren osaketarekin.

Haurrak psikomotritzitate garaian baldin badaude, zer dela eta erabakitzen dugu helduok espazio batera eraman eta zer egin behar duten agintzea? Zergertatzen da? Askotan, gehiegitan, eskola berrietan Haur Hezkuntzaren ispilu diren proiektuak aplikatzen dira. Ez dakienak, Haur Hezkuntzatik kopiatzen du, eta sekulako zentzugabeberriak ikusten dira; esaterako, urte eta erdiko haurrak fitxa batean marrazten. Eskola gisa ulertzen dute haur eskola. Nik ahal banu, 'eskola' hitza ezabatuko nuke. Buru asko argituko litzuke.

Haurrak ez doaz eskola konbentzional batera, egunean zenbait orduz beste ume batzuekin partekatutako espazio batera jotzen dira, bizitza ulertzen ikasteko. Irakaskuntza modala da. Gurasoek jolas gelan uzten dute beren seme edo alaba, eta gurasoen eta maisu-maistraren arteko begiradak informazioa ematen dio umeari: ulertzen du pertsona hori fidagarria dela eta harekin gustura egongo dela gurasoak berriz jasotzera itzultzen diren arte. Hori da erreferentziazko espazioa. Espazio horrek dena eman behar dio haurrari: janaria gose denean, atsedena logura duenean, eta batez ere, haurrak sentitu behar du berak nahi adina gertu dagoela heldua. Horren barruan daude, noski, haurraren gaitasun motritzeak.

rosa vidiella i badell



“**Haurrak psikomotrizitate garaian baldin badaude, zer dela eta erabakitzen dugu helduok espazio batera eramane eta zer egin behar duten agintzea?**”

“**Haur eskolan umeek ikasten dutena bizitza da; eta bizitza ez dago gela batean sartzerik**”

Haurrek bi motako jarduerak egiten dituzte lehen hiru urteetan: manipulazioa (ukitu, miazkatu, arramazka egin, bete, hustu...) eta mugimendu zabalak. Biek ordezkaturata egon behar dute jolas gelan.

Zer espazio gehiago behar ditu haur eskolak?

Haur eskola batek, eskola baino gehiago, etxe familiar baten antza izan behar luke. Baina plaza nagusi bat ere egon behar da, espazio heterogeneo bat, haurrak, gurasoak, maisu-maistrak bilduko diren leku bat, erabilera librekoa. Eta lorategia. Jolas gelak, plaza eta lorategia elkar loturik egon behar dute. Horrela umeak espazio berriak ekartzan ditu bere bizitzara, eta ez soilik maisu-maistrak erabakitzen duenean. Lehen urteetan ez dauka zentzurik haurrari esateak noiz atera behar duen lorategira, noiz joan behar duen jolas gelara... Umeak bere espazioa bizi behar du, intimitatea ematen diena, eta inor ez da bertan edozein modutan eta ustekabean sartu behar, baizik eta baimena eskatuta. Haurra espazio horretan eta helduaren konpainian seguru sentitzen duenean, beste espazio batzuk bilatzen hasten da, bere garapeneko unea delako. Horretarako, atek zabalik aurkitu behar ditu.

Baina mugak eta kondizionanteak ere badaude. Beti ezin dugu askatasun hori eman atek irekitzeari dagokionez. Badira zenbait momentu, gurasoak heldu direlako edota maisu-maistrak atsedean hartzeko beharra duelako, haur guztiak gelan sartzea komeni dela. Kasu horietan, azalpena ondo prestatuz gero haurrek berehala ulertzen dute. Ulertzen dute heldu batek sartu edo atera behar badu egin dezakeela, baina debekuak indarrean dirauela. Eta maistrak erabakitzen duenean berriz ere askatasuna dagoela gelatik ateratzeko, ezer esan gabe atera joaten da, baldoia irekitzen du eta atetik apartatzen da. Begirada altxatu duen umeak ulertu du eta atea zeharkatzera doa, edo ez. Umeek uler dezaketen muga da.

Eta zer eskaini behar die espazioak hezitzaileei eta familiei?

Lehenik eta behin, familiek ulertu behar dute hura ere beren etxea dela. Horretarako beharrezkoa da eskola guztiona dela ulertuko duen eta besteekin partekatzen jakingo

duen irakasle talde bat izatea. Jolas gelaren barruan, oso ondo dator sofa bat izatea, eseri ahal izateko, umeari harrera egiteko... Sarrerako guneretan gertatzen da dena: iritsierak, agurrak, bisitak; maistra gertu dago, handik hitz egin daiteke... Senideen zain dauden haurrak gelaren beste erdian daude, eta familiak, iritsi ahala, modu naturalean esertzen dira sofan, edo uraren txokoan sartzen dira umeari arropa aldatu behar badio, agur esaten dute eta badoaz. Eta gainerako umeek jolasean segitzen dute gurasoak iritsi arte. Familiak jolas-gelan hartzeko ohi-tura horrek oso emaitza onak ematen ditu.

Eguraldi onarekin lorategian egitea oso ondo dator, sarreraren aurretik hain juxtu, eta orduan gauza zoragarriak gertatzen dira. Esaterako, duela 16-17 urte eskola batean gertatutakoa aipatuko dizuet: zenbait guraso eta aiton-amonek esan zuten lorategiak intimitatea ematen ziela, ez ziotela heldurra umea bakarrik ibiltzeari, eta hain gustura zeuden, ezen eskola amaitu ostean bertan gelditzeko baimena eskatu baitzuten...

Horrelakoak lorategian zein plazan gerta daitezke. Beste aukera on bat da plazan gurasoen txoko bat sortzea, familien interesekoak diren aldizkariak, informazioak, artikulua uzteko. Etxea haurren bizitza nahasiko ez duen modu batean antolatzea da garrantzitsua. Haur eskola bat, ezereen gainetik, haurren etxe bat delako.

Materialei eta koloreei dagokienez, zer eduki behar dugu kontuan?

Espazioek, instalazioek eta materialek hausnarketa pedagogikoaren emaitza izan behar dute. Hortik aparte, materialei dagokienez, beti pentsatu behar da beraien funtzionaltasunean, garbiketan eta segurtasunean. Material naturalak lehenetsiko ditugu, eta baita koloreak ere, ateen, hormen eta leihoen kasuan, dagoeneko kolore biziz betea dagoelako haur eskola —haurren arropa eta jostailuengatik—. Gardentasuna garrantzitsua da haur eskolan, gunerak batetik beste batean gertatzen dena ikusteak haurraren jakinminari erantzuten baitio. Horrez gain, eraikinaren orientazioa zaindu behar da, eguzki orduak izan behar ditu, baina baita itzalak ere.

Ez duzu eskola instituzio baten gisan

ikusten, baizik eta 'haurren etxea' edo 'harrera gunea' bezalako kontzeptuak dituzu ardatz.

Eta elkarbizitzarena. Haur eskolan umeek ikasten duten ikasgaia bizitza da; eta bizitza ez dago gela batean sartzerik. Bizitza aurkitu egiten dute haurrek, eta helduon arteko harremanetan ikusten dute.

Nola hautematen dute haurrek espazioa?

Niri gaiak interes handia pizten dit, eta, hala ere, oso gutxi dakit espazioaren hautemateari buruz. Ikerketa gutxi egin dira. Azken urtean haur bat behatzeko aukera izan dut eta galdera berriak sortu zaizkit. Aurretik beste hainbat haurtxo behatu ditut eta jakin badakit haien jarrerak ez duela beti sentitzen dutena erakusten. Haur batzuek ez dute mina adierazten, eta hautematen jakin beharra dago; beste batzuek poza ezkutatzten dute eta horretaz jabetu beharra dago kanporatu ahal izateko.

Gauza bera gertatzen da espazioekin. Nik uste dut oso hasieran muga bat behar dutela. Seguruenik, lurtean egotea baino hobea da sehaskan egotea lehen 3-4 hilabeteetan, harik eta gorputzari buelta ematen ikasi eta lurrera jaisten dugun arte. Baina haurren begietara, sehaska horrek muga ba-

tzuk ditu. Beharbada badira amaren sabelaren muga sentitzen jarraitzea behar duten umeak, askatu aurretik. Gai apasionantea da, eta gehiago jakin beharko genuke horri buruz, umeak hobeko laguntzeko.

Maisu-maistren egitekoa zein da, haurrari laguntzea eta espazioak prestatzea?

Bai, horixe da. Inguruneak dira gure haurren liburuak. Inguruneak prestatu behar dira, haurrak aspertu ez daitezen. Irakasleek ez dute zaintzaile izan behar, laguntzaile eta ingurune hornitzaile baizik. Umeak behatu behar dituzte. Ez da lan erraza, batzuetan erritmoak eta mekanismoak gailentzen direlako.

Gertatu izan zaigu espazio zoragarria, ondo orekatua, ondo banatua eta mugitzeko gune zabalak dituzten eskolak bisitatu, eta, bi hilabete geroago, itzuligarenean dena aurrekoan bezala zegoela ikustea, eta haurrak aspertzen ari zirela. Halaber, 2-3 urteko haurren artean agresibitate handia zegoen kasuetan, baieztatu ahal izan dugu haur oldarkor horiek aspertzen ziren haurrak zirela. Haurrak aspertzen direnean, besteei bultzatza egin, jostailuak kendu eta begietara begiratzen diete, ea zer gertatzen den... Zer deskubriturik ez daukaten haurrak dira.

Irakasleek sortzaile ere izan behar dute.

Horregatik, haur eskola batek tailer-biltegi handi bat eduki behar du. Arkitekto askorekin lan egin dut eta %90ak ezin dute hori ulertu. Haien zat, balio ez duten gauzak uzteko lekua da biltegia. Eta horregatik, segitzen dute biltegi txikiak egiten, atea ireki eta gauzak gainera erortzen zaizkizula. Baina biltegiak espazio zabala izan behar du, arotzenak bezalako mahai batekin, lanabesekin, erositako jostailuez zein birziklatutako materialekin egindako jostailuez betetako apal handiekin... Eta jostailu eta material horiekin guztiekin, saski edo kutxa txikiak prestatu behar dituzte irakasleek. Haurrek material horiek deskubritu, manipulatu, sortu, jolastu behar dute... eta irakasleak adi egon behar du, zerk pizten duen haien interesa eta zerk ez. Haurren arreta pizten ez duena erretiratu eta zerbait berria jarri behar dute. Berritasunak beti erakartzen du. Umeek gauza ezagunak eta ezezagunak aurkitu behar dituzte egunero. Horrek aukera ematen die aurretik esperimentatu dutena errekonozitzeko, eta erronka berriak jarriko dizkieten gauzak deskubritzeko. Haurrak informazioa ematen dio irakasleari material berriak bila ditzan. Plastikoa ez, beste material batzuk erabiltzea komeni da, eta erositako jostailuen orde, birziklatutako materialekin egitea. Haurren ingurunea zaindu behar du irakasleak, aspertu ez daitezen.



zure ziztada behar dugu

Hedabideen aldaketa sakonari indartsu heltzeko, egoera ekonomiko zailari erantzuteko eta BERRIA proiektuaren geroa ziurtatzeko, BERRIAzaleon komunitatea indartu nahi dugu. Erleak bezala, elkarlanean, gai garelako.

Izan zaitez

berrialaguna

Informazio eguneratua
eta euskarri gehiago:
www.berria.info/berrialaguna

berria^{info}

Honako ekarpen hau egin nahi dilot
BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOARI,
G71006795 IFK duena:
Adierazi X batez zure aukera

- | | |
|--|---------------------------------------|
| <input type="checkbox"/> Urtean 100 € | <input type="checkbox"/> Urtean 200 € |
| Aldi batean <input type="checkbox"/> | Aldi batean <input type="checkbox"/> |
| Lau zatitan <input type="checkbox"/> | Lau zatitan <input type="checkbox"/> |
| <input type="checkbox"/> Urtean beste kopuru bat: <input type="text"/> € | |
| Aldi batean <input type="checkbox"/> | |
| Lau zatitan <input type="checkbox"/> | |
| 100 eurotik beherako kopuruetan
ordainketa aldi batean egingo da | |
| <input type="checkbox"/> Hilean 10 € | |

Sinadura

berrialaguna izan nahi baduzu,
bete datuak eta helarazi:

- www.berria.info/berrialaguna
- **Postaz:** BERRIA. Martin Ugalde kultur parkea, z/g. 20140 - Andoain
- **Posta elektronikoz:** laguna@berria.info
- **Telefonoz:** 943-30 43 45

Izen-abizenak:

Helbidea:

PK:

Herria:

Kontu zenbakia:

Tel.:

NA:

Posta elektronikoa:

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalak Babestekoa, betetik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOAREN fitxategi automatizatu batera pasatuko direla. Zure esku dago ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko eta kontra egiteko eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: BERRIA HEDABIDEEN FUNDAZIOA, Iratxe Monastegia 45, 13. 31011 Iruñea.

PARTAIDETZA:

gurekin bada, izango da (IV)



Marije APODAKA,
Gotzon QUINTANA
eta Bea UGARTE

Taldearen lankidetzeta-egitura

- Interakzio handia. Ahalegin partekatua.
- Komunikazio eraginkorra. Dinamika pertsonala eta soziala.
- Besteei helburuak lortzeko bidea erraztea: lagunduz, partekatuz edo irakatsiz. Helburu komunak, inklusiboak.
- Kideen eragina, helburuari begira.
- Gatazka arazoan konponbidera zuzentzea.
- Oso pentsamendu dibergentea eta arriskutsua.
- Konfiantza handia.
- Aldeen onarpen eta babes sakona.
- Implikazio emozional handia eta ikasteko konpromisoa, taldekide guztien aldetik. Giza baliabideen erabilera handia.
- Zereginen banaketa posiblea.
- Porrotari beldur txikiagoa.
- Guztiek irabazten dute, edo guztiek galtzen dute.

Taldearen egitura lehiakorra

- Interakzio txikia. Ahalegin paraleloa.
- Komunikazio falta edo komunikazio engainagarria edo mehatxagarria. Dinamika indibidualista.
- Besteen helburuei oztopoak jartzeko joera. Bakarkako helburu baztertzailak.
- Taldekideen eragina, helburuen kontra.
- Gatazka irabazi/galdu dimentsiora zuzentzea.
- Pentsamendu ez oso dibergentea eta ez oso arriskutsua.
- Konfiantza gutxi.
- Onarpen eta babes gutxi taldekideen artean.
- Ezinezkoa zereginak banatzea.
- Porrotari beldur handiagoa.
- Batzuek irabazi egiten dute, eta besteek galdu.

I.6.2 baliabidea. Talde osasuntsua eta talde gaixoa hautemateko jarraibideak

TALDE GAIXOA

TALDE OSASUNTSUA

1. Eztabaidan: tolerantzia eta abegia

- Soilik taldeko kide batzuek adierazten dituzte berez beren iritzia, nekezago adierazten dituzte beren sentimenduak, eta are nekezago beren proiektuak.
- Kideek ez dituzte entzuten beste batzuek proposatutakoak, eta une oro eragozpenak ematen edo beren burua defendatzen ari dira.
- Garrantzi handirik gabeko puntuek edo puntu orokorrek hartzen dute denboraren zatirik handiena, eta erabaki garrantzitsuenak edo zehatzak hartzea saihestu egiten da, presaka hartzen dira, edo lehenbailehen batzorde baten esku uzten dira.

- Kide guztiek beren borondatez pentsatzen eta sentitzen dutena esaten dute, edo beren asmoen berri ematen dute.
- Taldekideek besteek proposatutakoa entzuten eta ulertzen dute (gai dira entzun berri dutena errepikatzeko, adibidez).
- Iritzi zailak edo garrantzitsuak luze eta zehatz eztabaidatzen dira, eta eskumena duten arduradunei helarazten zaizkie, haiei dagozkienean.

2. Erabakitzerakoan: objektibotasuna eta progresibotasuna


- Gaitasuna duten kideek ez dute beren iritzia ematen aztertzen ari diren gaiak.
- Kide baten iritzia taldearen ohituren arabera, azpitalde baten erantzunen arabera edo zuzendari lanean ari denaren iritzien arabera epaitzen da.
- Oro har, erabakiak tradizioen, teoria abstraktuen, aurreiritzi sentimentalaren eta ikuspegi mugatuen arabera hartzen dira.

- Aztergai duten arazoari dagokionez, gaitasuna duten kideen iritzia arreta handiagoz entzuten dira.
- Kide baten iritzia berorren balioaren arabera hartzen da, edo, eztabaidatu ondoren, baztertu egiten da.
- Errutinarekin edo konformismoarekin hautsiz hartzen dira erabakiak, betiere, taldearen printzipio edo xedeetatik erator daitezkeen datu positiboaren arabera, eta irismen handiko ikuspegia hartuta kontuan.

3- Ekintzan: sormena eta pertsonenganako errespetua

- Ekimen berriak babesgabe edo ez egiteko aholkuekin datoz.
- Huts egin duen kidea deskalifikatu egiten da, isilik egotera behartzen da, edo bazterrean uzten da.
- Taldeko pertsona batzuekin gehiegikeriaz jokatzeko du taldeak, edo bere onurarako erabiltzen ditu pertsona horien akats batzuk.
- Taldeak bere barnean batasuna presio moralaren bidez indartzen du (mehatxuak, adibidez) edo oldarkortasunez jokatzeko (lehia sortuz, adibidez), barruko taldearen aurka nahiz kanpokoaren aurka.

- Jarduera berri eta sortzaileak sustatzen eta bultzatzen dira.
- Taldekide batek zeregin berri batean edo lan zail batean huts egin badu, babesa ematen zaio, intentzio onez ari zela jabetuta, eta bitartekoen erabilera zuzena egiten laguntzen zaio.
- Taldeak uko egiten dio taldekide batzuek izan ditzaketen ahuleziak edo akatsak ustiatzeari.
- Pertsonen parte-hartzea indartzen du taldeak, irudipenak elkarrekin trukatu eta sinpatian oinarrituta (baita kanpoko taldeekikoa ere).

I.7 zk.	Taldean arauak proposatzen 
Deskribapena	Proiektuaren helburuak argi ditugula, talde-lanerako funtzionamendu-arauak adostuko ditugu, lana antolatze eta garatzeko. Gainera, ardurak banatuko ditugu, eta kontrol-mekanismoak, taldea hobetzeko neurri zuzentzaileak eta elementu indargarriak ezarriko ditugu, eta baita ondo egindakoak azpimarratuko dituzten neurri positibo eta motibatzaileak ere.
Teknika	Arauen lanketa
Materialak	<ul style="list-style-type: none"> - Bi kaxa, txartelak, arbela, talde-lanerako fitxak - I.7 tresna: arauak proposatzen
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none"> - Betebeharren eta eskubideen arteko dependentzia, eta korrelazio horri eusteko konpromisoa sustatzea. - Arauen zentzu positiboa, berorien xumetasuna. Koherentziak, malgutasunak eta elkarri laguntzeak duten garrantzia. - Arauen jarraipena eta aplikazioa, eta neurri zuzentzaile orekatuak eta eraikitzaileak ezartzea. Arauak ez betetzeak ondorioak ditu. - Jarrera eta jokabide eraikitzaile, egoki eta onuragarrien sustapen positiboa. 	
Garapena	
<p>- Hasteko, azalduko zaie helburua talde bakoitzak arauen zerrenda bat idaztea dela, eta arauak horiek lagungarri izan behar dutela taldean ondo lan egiteko eta taldekideak gustura sentitzeko. Ondo ikusten den toki batean, bi kaxa kokatuko dira: helburua lortzeko eta elkarri gauzak hobeto egiten laguntzeko betebeharrei dagokiena, eta eskubideei dagokiena. Bakoitzak betebehar bat eta eskubide bat proposatuko ditu, eta kaxan sartuko ditu. Oharra: saiatu EZ hitza gutxi, ahalik eta gutxien, erabiltzen. Pentsatu egitea komeni den gauzez.</p> <p>Guztien proposamenak aterako dira pixkana, eta arbelean idatziko dira, antzeko esanahia dutenak multzo beretan biltzen eta laburtzen saiatuz. Bi zutabe egongo dira: bata, eskubideetarako, eta bestea, betebeharretarako.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Bigarren pausoa, sailkapen-irizpide hau aplikatuko dut: niri dagozkidan betebeharrak eta eskubideak, edo guri dagozkigunak, markatuko ditugu, onar, kontrola eta kudea daitezkeenak. “Guri ez dagokiguna”, gure erantzukizuna ez dena, kanpoan utziko dut. - Taldetan bilduta, bakoitzak garrantzi handienekotzat jotzen dituen betebeharra eta eskubidea aukeratuko ditu, eta guztiak bilduko dira (begiratu talde-lanerako fitxa). Ordenatu eta erlazionatu egingo dira, betebehar asko beste hainbat eskubideren beste alderdia baitira. Nahi ditugun guztiak erantsiko ditugu, baina, oso zerrenda luzea egiten badugu, bizimodua eta lana dezente konplikatuko zaizkigula hartu behar dugu kontuan: <ul style="list-style-type: none"> • Ez ditugu arau asko nahi! • Zer arau betetzeko konpromisoa hartzen dugun, horietan bakarrik jarriko ditugu! - Arauak idatziko dira: gutxi, xumeak eta ikuspegi positibotik. - Neurri zuzentzaile bat adostuko da: zer egingo dugu erabakitakoa betetzen ez dugunean? - Eta, batez ere, ondo egindakoak eta jarrera eta jokabide errespetagarriak, sortzaileak eta onuragarriak nola indartuko ditugun zehaztuko dugu. 	

I.7. tresna. Taldean arauak proposatzen

- Eskubide garrantzitsuenak aukeratuko ditugu.
- Betebehar garrantzitsuenak bilduko ditugu.
- Multzokatu (erabili zenbakiak) eta laburtu egingo ditugu.
- Eskubideak eta betebeharrak erlazionatuko ditugu (erabili geziak).
- Arauak idatziko ditugu (ez gehiegi!).

Gure taldearen ESKUBIDEAK		Gure taldearen BETEBEHARRAK		arauak
				1
				2
				3
				4
				5
				6

Gure taldearen ARAUAK

1
2
3
4
...
...

Zer egingo dugu ondo egindakoa eta positiboa dena saritzeko?

Zer egingo dugu erabakitakoa betetzen ez dugunean?

1.8 zk.	Parte hartzeko elementuak
Deskribapena	Jarduera honetan, parte-hartzea zer den aztertzeko, gogoeta egingo dugu, talde txikietan lehenengo eta talde handian gero, sormen- eta analisi-teknika bat erabiliz.
Teknika	Mahai-zapia
Materialak	<ul style="list-style-type: none"> – Mahai-zapi baten neurriko paper-zati bat talde bakoitzeko. – Arkatz markatzaile bat pertsonako. – Guraizeak
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none"> – Hobe litzateke irakasleok, aurrez, parte-hartzearen inguruko zenbait alderdiri buruz zerbait irakurtzea, horrela, azken ondorioak aberasteko. – Ikuspegi metodologikotik, talde bakoitzean neska bat bakarrik egon ez dadin saiatuko gara; bi edo gehiago egongo direla bermatuko dugu. – Partaidetzan generoaren ikuspegiak duen eragina nabarmenduko dugu. – Definizioak idatziko ditugu. 	
Garapena	
<ul style="list-style-type: none"> – Talde handian, bost laguneko taldeak egingo dira; talde bakoitzeko mahai bat izango da, eta, zutik eta mahai horren inguruan, planteatuko zaien galdera landuko dute. – Mahaiaren gainean paper-zati bat ezarriko da, mahai-zapi bat balitz bezala (talde bakoitzeko bat). Paper-zati horretan, honako galdera hau agertuko da, zirkulu batean sartuta: “Zein dira partaidetzarekin lotuta dauden alderdiak?”; eta bost gezi aterako dira zirkulu horretatik. – Bakoitzak arkatx markatzailearekin eta ahalik eta naturaltasun handienez burura datorkiona idatziko du, dagokion geziaren muturrean. – Guztiek zerbait idatzi eta gero, aldi berean eskuinera mugituko dira, eta, beraz, taldekide batek egindako ekarpena izango dute aurrez aurre. Ekarpene horri berorrekinekin eta “partaidetzarekin” lotuta dagoen zerbait erantsiko diote. – Idatzi dutenean, hurrengo ekarpena joko dute, eta aurrekoarekin lotuta dagoen ekarpen bat erantsiko diote. Horrela jarraituko dute, berriro bakoitza bere tokira itzuli arte. Bakoitzak bere ekarpena eta beste lau ekarpen aurkituko ditu. – Bakoitzaren zatia ebakiko da, irakurri egingo dute, eta talde txikietan beroriei buruz hitz egingo dute. Txandaka hitz egingo dute, idatzi dutenarekin ados dauden edo ez dauden azalduz. – Idatzi, irakurri eta eztabaidatu duten hori guztia kontuan hartuta, partaidetzaz bakoitzaren definizioa eta taldearena idazteko esango diegu, eta talde osoaren aurrean nork irakurriko duen erabakiko dute. – Definizio guztiak irakurriko dira, eta irakasleak, alderdi teorikoetan oinarrituta eta beharrezkoa dela ikusten badu, osatu egingo ditu, partaidetzarako oinarritzko elementuak eta baldintzak zein diren argi eta garbi uzteko. 	
Sakontzeko	
<p>Murguialday, Clara (1999): Guía metodológica para integrar la perspectiva de género en proyectos y programas de desarrollo. Emakunde – Emakumearen Euskal Erakundea eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia, Garapen Lankidetzarako Zuzendaritza. Bilbo.</p> <p>Guerra Santos, Miguel Angel (koord.) (2000): El harén pedagógico. Graó. Bartzelona.</p> <p>Espiau, Mireia; Saillard, Dominique; Ajangiz, Rafa (2005): Género en la participación. Un camino por recorrer. Cuadernos Bakeaz, 67 zk. Bilbo.</p> <p>Askoren artean (2009): Guía de participación en los centros docentes. Hezkuntza eta Zientzia Saila. Hezkuntza Politiken, Ikasketen Antolakuntzaren eta Lanbide Prestakuntzaren Zuzendaritza Nagusia. Hezkuntzako Partaidetza eta Orientazio Zerbitzua.</p> <p>http://www.educastur.es/media/publicaciones/apoyo/guia_participacion.pdf</p> <p>Jurado, Carmen (2009): La participación educativa del alumnado</p> <p>http://www.csi-csif.es/andalucia/modules/mod_ense/revista/pdf/Numero_23/CARMEN_JURADO_GOMEZ02.pdf</p>	

I.9 zk.	Ikastetxeko parte-hartze egoerari buruzko diagnostikoa: parte hartzen dugu benetan?
Deskribapena	Eskolan esku hartzen duten eragile guztien parte-hartze motari buruzko azterketa egitea da kontua, elkarrizketen teknika erabiliz eta eskolako espazioen erabilera hartuta abiapuntuztat.
Teknika	Diagnostiko parte-hartzailea
Materialak	<ul style="list-style-type: none"> - I.9.1 tresna: eskolako mapa, gune bakoitzean garatzen diren jarduerak ageri dituen. - I.9.2 tresna: erantzuteko galde-sorta. - I.9 baliabidea: elkarrizketarako eta behaketarako teknika
Funtsezko alderdiak	
<ul style="list-style-type: none"> - Elkarrizketak neskek nahiz mutilek egin behar dituzte, lanak eta ardurak berdintasunez banatuz. - Ikastetxeari behatuko diogu une batez, parte-hartzearen ikuspegitik. - Parte-hartzearen inguruan, pertsonak, espazioak eta gogobetetasun mailak identifikatuko ditugu. - Azken ekoizpena zainduko dugu, aldeko elementuak eta kontrakoak kontuan hartuta. 	
Garapena	
<p>1. saioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Eskolaren mapa egingo da, bertako gune guztiak kontuan hartuta, eta nork erabiltzen duten eta zer jarduera motatarako adieraziko da mapa horretan (eginda eraman daiteke saiora, edo ikasleek egin dezakete saioan, baina gune guztiekin azaldu behar dute). - Gune horiek taldeen artean banatuko dira. Talde bakoitzak horietako bat aztertuko du. - Azterketarako, inkesta bat emango zaie, baina inkesta hori hobetu edo osa dezakete, beharrezko irudituz gero. Aztertu egingo dute, eta behar izango dituzten baliabide guztiak aurreratuko dituzte. - Hauei buruzko jarraibide teorikoak emango zaizkei: “elkarrizketetarako teknika”, “behaketa” eta “espazioaren erabilera eta parte-hartzea” <p>Saioen artean:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasleek elkarrizketak egingo dituzte beraiei egokitutako guneetan, informazioa bilduko dute, ondo ordenatuta eta ulertzeko eta komunikatzeko modu egoki batean. <p>2. saioa:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Talde bakoitzari denbora pixka bat utziko zaio, taldeari emango dion informazioa ordenatzeko. Laburtu eta interpretatu egingo du. - Egindakoa bateratuko da. - Bi horma-irudi egingo dira: <ul style="list-style-type: none"> a. Gure eskolan modu demokratikoan parte hartzeko elementu gokiak. b. Gure eskolan “parte-hartze demokratikoa” gauzatzeko hobetu daitezkeen elementuak. <ul style="list-style-type: none"> - Jarduera balioetsiko da. 	
Sakontzeko	
<ul style="list-style-type: none"> - Subirats, Marina; Tomé, Amparo(2007): Balones fuera. Reconstruir los espacios desde la coeducación. Octaedro. Bartzelona. - Espinar, Eva eta Ruiz, José Antonio (2002): Producción del espacio y desigualdad de género. El ejemplo del campus universitario de Alicante. Espagrafic (edizio elektronikoa). Alacant. 	

1.9.1 tresna: eskolako mapa

Gure eskolaren egoera demokratikoaren taldeko diagnostikoa: ariketa honen bidez ikastetxe bat imajinatu behar dugu, bertako kolektiboek gogotsu parte hartzen duten ikastetxe bat; eta, horretarako, gure inguruan zer ari den gertatzen aztertuko dugu.

AZTERTU BEHARREKO ESPAZIOAK



1.9.2 tresna: Eskolaren erabilera parte-hartzaileari buruzko gogoeta kolektiboa

ESPAZIOA:

- 1.- Zergatik erabiltzen duzu espazio hau?
- 2.- Zer hobetuko zenuke parte-hartze demokratikoa sustatzeko?
- 3.- Honetaz gain, zentroan dauden lekuak eta jarduerak ezagutzen dituzu?
- 4.- Honetaz gain, beste zerbait erabiltzen duzu?
- 5.- Zer ez dago zentroan, egon behar lukeena?
- 7.- Hemen neskek eta mutilek, emakumeek eta gizonek berdín parte hartzen dute?
- 8.- Beste zerbait erantsiko al zenuke?

Izena

Adina:

Sexua:

Kolektiboa:

Mila esker!!

ekarpenak

Ikasle euskaldun eleanitzak sortzen

Kontseiluaren proposamena martxan jarri dute Dimako eskolan eta Donostiako Aitor ikastolan, Sortzen Ikasbatuaz en babesarekin

Ikasle euskaldun eleanitzak sortzeko proiektua martxan jarri dute Dimako eskolan eta Donostiako Egia auzoko Aitor ikastolan. Gizarte Erakundearen Kontseiluaren dokumentua kaxoitik ateratzea erabaki du Sortzen Ikasbatuazek, eta Elhuyarren aholkularitza lanarekin abiatu da egitasmoa Diman eta Donostian. Eleaniztasunaren erronkari heltzeko proiektu hau behin betiko kaxoitik ateratzea erabaki du Sortzenek, dokumentuak bere baitan hainbat balio dituelako, Aitziber Martinez de Lagos koordinatzailearen arabera: “Eleaniztasuna planteatzen duten beste zenbait egitasmok ez bezala, proiektu honek dakarren berritasuna da legea bete egingo litzatekeela berau gauzatuz gero, hizkuntza desberdinetan ikasleek dituzten gaitasunak ziurtatuko babilirateke; eta bestetik, dokumentu hau atzean lanketa handia duen egitasmoa da, eragile askoren adostasun zabalarekin egin zena”.

2007. urtean argitaratutako *Hizkuntzak irakatsi eta ikasteko markoa EAEn* legearen garapenerako Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak egindako proposamen hau osatzeko eta garatzeko, Kontseiluko hezkuntza arloko bazkideak eta ordezkariak bildu ziren Arantxa Urbek zuzendutako lantalde teknikoan. Honako hauek osatu zuten lantaldea eta adostu zuten dokumentua: EHIK (Koldo Tellitu), EHIGE (Ana Eizagirre), Kristau Eskola (Mikel Ormazabal), Sortzen Ikasbatuaz (Julen Etxeberria) eta Hik Hasi (Joxe Mari Auzmendi). Markoa garatzeko proposamena lantzerakoan kontuan hartu ziren hainbat zientzia dizipli-

na; hala nola, glotodidaktika, soziolinguistika, psikolinguistika eta soziopolitika, besteak beste. Gainera, Mari Jose Azurmendi, Felix Etxeberria, Paulo Iztueta eta Matilde Sainzen ekarpenak ere jaso zituen proposamenak.

Dimako eskolako eta Aitor ikastolako kasuak

Beste hamaika ikastetxetan bezala, Dimakoan eta Aitorren ere denbora luzea daramate hizkuntza proiektuaz hausnartzen, eta planak eta metodologiak pentsatzen. Biak ala biak soziologikoki ingurune nahiko euskalduneko ikastetxeak izanagatik ere, euskararen erabilerak kezka sortu du bi zen-

troetan, ezagutza zabala den arren hizkuntzaren erabilera jaitzi egin baita, bi kasuetan, ikasleen artean. Adibiderako, lehenago ez bezala, jolas garaian edo jangela orduetan, eta zenbait kasutan gelan bertan ere, erdarara jotzen dute gaur egun ikasleek. Biak Lehen Hezkuntzako ikastetxeak dira: 139 ikasle ditu Dimakoak, eta 350 inguru -bi letrotan- Egia auzoan kokaturik dagoenak.

Teoria eta marko mailako eztabaiden ondoren, orain Kontseiluaren proposamena martxan jartzea erabaki dute, batetik dokumentuaren muin-muinarekin bat egiten dutelako, hau da, ikasle eleaniztunak sortzeko euskaratik abiatu behar dela argi dute ikastetxeek, euskaldun eleaniztunak izango



Dimako eta Aitorreko irakasleak Elhuyar, Kontseilua eta Sortzen Ikasbatuazeko ordezkariekin.



Zefe Ziarrusta eta Ainhoa Baraiaetxaburu (Dima), Julen Etxeberria eta Axun Azurza (Aitor ikastola) eta Aitziber Martinez (Sortzen Ikasbatuaz).

direla benetan eleaniztunak izango badira; eta, bestetik, Sortzen Ikasbatuaz eta Kontseiluaren babesa, Elhuyarren esku hartzea eta, behar izanez gero, Huheziren aholkularitza izateak bidean aurrera egiteko konfiantza ematen die, bai baitakite ikas-komunitate osoarentzat lan mardula izango dela proiektua martxan jartzea eta garatzea.

Aitor eta Dimako ikastetxean abiatuko du proiektua Sortzen Ikasbatuazek. Behin finantzazioa loturik eta ikastetxeetako organo gorenek onarturik, bost urtetan osatuko dute elkarrekin ibilbidea, sentsibilizazio eta diagnostikotik hasi, minimoak eta helburuak ezarri, plana diseinatu eta beratu martxan jarri arte. Horretarako, hiru lantalde osatu dituzte: ikastetxe bakoitzean talde eragilea osatu dute (zuzendariak, proiektuaren arduradunak eta gurasoek); herrietan ere batzorde gisa funtzionatuko dute ikastetxe ordezkeri eta herriko eragileekin; eta hirugarrenik, jarraipen batzordeak prozesu

guztiaren jarraipena, aholkularitza eta ebaluazioa egingo du, Kontseiluko ordezkeriaren, Sortzen Ikasbatuazekoekin, Elhuyarrekoeekin eta Huheziko irakasleekin. Eta ondoren, unean uneko ebaluazioa eginez eta ereduak osatuz, dokumentuaren oinarriak zabaldu nahiko lituzkete beste ikastetxe batzuetara.

Euskaratik abiatzen den eleaniztasuna

Ikasle euskaldun eleanitzak sortzeko dokumentuak euskara proposatzen du eskola hizkuntza gisa. Bi hizkuntza ofizial izanagatik, horietako bat, euskara, gutxitua dagoenez, lehenetsia eman behar zaiola nabarmentzen du dokumentuak, euskara erabilgarri ikus eta gerta dadin ikasleen begietara. Etxeko hizkuntza euskara ez duten ikasleentzat murgiltze-eredua proposatzen du dokumentuak eta etxeko hizkuntza euskara dutenentzat mantentze-eredua. Horrez

gain, proposamen horrek, alde psikolinguistikoa eta soziolinguistikoa kontuan izanirik, oinarritzko printzipio bat plazaratzen du: euskara gutxiago duen ikasleari eskolako euskara gehiago eskaintzea.

Kontseiluaren proposamena, alabaina, horixe da, proposamen bat, non oinarriak argi zedarrizten diren, baina ikastetxe komunitate bakoitzari dagokio bere errealitatearen eta beharren arabera hausnarketa, prozedura eta hizkuntza plana egitea.

Ikastetxe komunitatea aipatzen da, izan ere, proiektu hau ez da eskolako lau hormetara mugatuko. Alde horren garrantzia nabarmentzen du Aitor ikastolako irakasle Julen Etxeberriak. “Euskaldundu nahi badugu, herriko eragile guztiek parte hartu behar dute, ikastetxea, bestela, irla bat delako; eta umeak arratsaldeko lauetatik aurrera ez daude irla horretan. Proiektu honek gurasoak eta herriko eragileak inplikatzeko aukera ematen du, eta horrek guretzat balio handia du”. Baita Dimakoentzat ere,

Ainhoa Baraiaetxaburu irakasleak azaldu duenez: “Gizartearen beharrak asetzeko proiektu bat da, gizarte euskaldun eta eleaniztuna sortzeko bidean urrats garrantzitsuak, herri osoa inplikatu eta gizartea kohezionatzeko eta gorpuzteko baliabideak eskaintzen dituen”.

Ikasle eta irakasleez gain, beraz, gurasoak eta herriko eragileak, udalekoak, nahiz aisialdiko taldeetakoak, dendariak, kultur elkarteetakoak inplikatu dituzte bost urte hauetako lanean. Horien guztien arteko dinamizazio lana egiten ari da Elhuyar. Proiektuaren aurkezpena bera herrira –Dimako kasuan– eta auzora –Aitorren kasuan– zabaldu dute, eta herriko eragileek hartuko dute parte, hasiera-hasieratik, sentsibilizazio lanean eta egoeraren diagnostian, ikasle, irakasle eta gurasoekin batera. Orain arte, auzoan nahiz herrian harrera oparoa izan du proiektuak, bai aurkezpen ekitaldietara gerturatu diren eragileen kopuruari dagokionez bai atariko bileretan eginiko hausnarketei dagokienez, Ana Labaka Elhuyarreko aholkulariak azaldu duenez.

Orain, diagnostia egiteko unea

Egoeraren diagnostia egiten ari dira bi ikastetxe komunitateak une honetan, Elhuyarren laguntzarekin. Horretarako, irakasle klaustroarekin, gurasoekin –euskaldun eta erdaldunekin–, 10 eta 11 urteko ikasleekin eta herriko eragileekin egin dituzte eta egingo dituzte bilerak. Diagnostikoa egitean gela barrukoa nahiz kanpokoa kontuan izan dute, baita eremu instituzionala, familia eta eskolaz kanpoko espazio eta eragileak ere. Sentsibilizazio lanetik abiatu, hizkuntzarekiko bizipenak mahai gainean jarri eta hizkuntza proiektu bat egiteko premia azaldu da lehen bileran horietan. Halaber, herriko eragile, elkarte eta abarrek Hizkuntza Proiektuaren diseinuan eta Plan Estrategikoaren diseinuan eta garapenean ere parte hartuko dute. Ikastetxe bakoitzak duen errealitatetik abiatuta eta ikas-komunitate osoak zehaztu duen Hizkuntza Proiektua kontuan harturik, 4-5 urteko plan estrategikoa diseinatuko dute parte hartzaileek.

Hizkuntza proiektua osatzeko eta ikasle euskaldun eleanitzak sortzeko ikastetxeren eta kanpo-eragileen arteko harremana



eta elkarlana sustatzea, era berean, herriko eragileak hezkuntza gaietan inplikatzen diren urrats bat izan liteke, Aitziber Martinezen aburuz. “Herria ere sentsibilizatu behar da hezkuntza bera bere egiteko dela, eta ikastetxearen garapena bere ardura ere bada; hori ere ekarriko du proiektu honek, eta etorkizun batean, igual, herrian bertan sor litezke beste proiektu batzuk elkarlanean egiteko”.

Metodologiaren garrantzia

Euskara indartzeko eta bermatzeko, baina, aldi berean, ikastetxea eleaniztuzteko ahaleginean, teoriatatik praktikara urrats ematean izan dituzte orain arte zailtasun handienak Dimako ikastetxeak eta Aitor ikastolak. Kontseiluaren dokumentuak metodologian berrikuntza sakonak egin behar direla planteatzen du: euskara ezagutzeko helburuarekin batera, euskararen erabilera ere eragingo duen metodologia behar dela aipatzen du, eta ezinbestekotzat jotzen du ikasleek euskararen funtzionalitatea sentitzea. Halaber, hizkuntzarekiko identifikazioa eta alde afektiboa ere aipatzen ditu proposamenak.

Erreferentzia egiten dio, baita ere, taldeen antolaketa, irakasleen prestakuntza teknikoari, eta baita motibazioari eta eskolaz kanpoko eragileei ere. “Lehen urratsa zentroa izaeraz eta funtzionamenduz benetan euskalduna izatea da. Eta hortik abia-

tuta, eskola barrua eta kanpoa lotu beharko ditu proposamenak. Beraz, aisialdiaren eta eskolaren arteko koordinazioak estua izan behar du, ikasleek eskolatik kanpoko ekintzak ere euskaraz egin ahal izateko”.

Ebaluazioak garrantzia handia izango du aipaturiko bost urteko epe honetan, “diseinatzen diren plangintzek euskararen ezagutza maila eta erabilera maila egokiak ziurtatzen dituzten jakiteko, eta horrela ez den kasuan laguntzabideak non behar diren detektatzeko”, dokumentuak dioenez.

Proposamenaren beste habeetako bat Haur Hezkuntzan hizkuntzen ezagutzak duen garrantzia azpimarratzea da. Bereziki zaindu beharreko bi alderdi ere aipatzen ditu dokumentuak: alde afektiboa eta identifikazioa. “Kontu handiz zaindu beharrekoa litzateke maila pertsonala, ez baitugu ahaztu behar motibazioak ere pertsonalak dira. Dударik ez dugu euskarara afektiboki hurbiltzea lortzen den kasuetan hizkuntzarekiko atxikimendua handiago dela eta horrek asko errazten duela ondorengo hizkuntzaren gaineko ikasketa guztia”. Identifikaziora dagokionez, txostenak garrantzitsutzat jotzen du haurrek hizkuntza pertsona eta espazio jakin batekin edo batzuekin identifikatu ahal izatea. “Horrela, etxetik euskara ez dakarten haurrek eskola eta bertako langileak identifikatuko dituzte euskararekin, eta bi hizkuntzen arteko interferentziak saihestuko dira, horiek sendotuz”.

Adostasun zabalarekin mamitu eta osaturiko dokumentua Diman eta Egiako ikastolan praktikara eramanez, Sortzen Ikasbatuazek azaldu nahi du ikasle eleaniztunak sortzeko alternatibak egon badaudela, “herri-eritiko eta herriarentzat eginiko proposamen on bat dago, herri honetako beharretara egokitutako proiektu bat”. Legeak dioena beteko bada, hau da, ikasle guztiek bi hizkuntza ofizialetan eta beste batean konpetentziak edukitzea nahi bada, euskarari lehentasuna eman behar zaiola berretsi du Aitziber Martinez de Lagosek, esparru horretan egiten baitute herren gaur arteko ereduak zein ezarri nahi diren bestelako hiru eleko ereduak. “Proiektu honekin ikusarazi nahi dugu, gaurdanik posible dela martxan jartzea etorkizun baterako nahi dugun euskal eskola, proiektu honek horri erantzuten baitio”.

ekarpenak

Hezkuntza inklusiboa eta eskola-porrota

Segundo GARIN CASARES
Pello ARAMENDI JAUREGI
EHUko irakasleak

Oinarrizko gaitasunak lortzea ezinbestekoa bihurtu da gure gizartean integratzeko. Egungo gizarte kompetitibo honetan, gaitasun horiek lortzen ez dituen ikasleak aukera dezente ditu marjinazio arriskuan geratzeko. Eskola-porrota eta eskola-uzte goiztiarra dira Europako hezkuntza-politikak dituen gabeziarik nabarmenenak.

Europako Komisia (2009) dioenez, eskola-porrota Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza gainditzen ez denean gertatzen da. Aldiz, eskola-uzte goiztiarra honela definitzen du: 18 eta 24 urte bitarteko gazteek, DBHko maila gaindituta izan arren, Batxilergoa edo Lanbide Heziketa ez gainditzea. Eskola-porrota Derrigorrezko Hezkuntzarekin lotuta dago, eta eskola-uzte goiztiarra derrigorrezko ez diren etapekin. Bi fenomeno ezberdin dira baina, era berean, biak guztiz loturik daude.

Espainiako Estatuan ikasleen % 31k ez du eskola-graduatu lortzen, hau da, ez du hezkuntza-sisteman dagoen titulazio baxuena ere lortzen. Estatuko erkidego bartzuek tasa hori gainditu egiten dute. Murztzia, Andaluzia, Balear Irlak edo Ceuta eta Melillako tasak % 38tik gorakoak dira. Espainia, Europako Batasuneko (EB) estatuen artean, oso atzeraturik dago, Portugal eta Maltarekin batera. Europak duen batzaz bestekotik oso urrun dago (% 17).

Eskola-uzteari dagokionez, Europako Batasunaren batzaz bestekoa % 14,9koa da. Espainiak, aldiz, gainditu egiten du: %31,9koa da (ebaluzio-institutuaren 2009ko datuen arabera). Erkidegoen artean, Ceuta eta Melillak % 45,7ko tasa du,

Murtziak % 39,1, Gaztela-Mantxak % 37,1, Andaluziak % 36,8 eta Extremadurak % 35,5. Hego Euskal Herriko datuak askoz ere hobeto dira. Euskal Autonomia Erkidegoko kopurua % 15,6koa eta Nafarroakoa % 12koa da. Europako Batasunak, 2020. urterako, eskola-porrota tasa %10era jaitea du helburu. Hego Euskal Herriak lortu dezakeen helburua da hori.

Europako Batasunaren iritziz, “ipar-hego arraila” gertatzeko arriskua dago. Portugal, Espainia, Grezia eta Italiako hezkuntza-adierazleak gero eta gehiago urruntzen ari dira Europako Batasuneko estatu garrantzatik: Erresuma Batua, Alemania, Belgika, Herbehereak eta Suedia. Gaur egun, Espainian 15-29 urte bitarte dituzten bi milioi gazte inguruk ez dute ikasten, ez eta lanik egiten ere (gaztelaniaz “ninis” deitzen zaie: “*ni estudian ni trabajan*”). Espainiako gazteen artean, langabeziaren tasa ofiziala %53,2koa da. Kopuru hori Greziak bakarrik gainditzen du. Gazteen eskola-porrota eta eskola-uzte goiztiarra gutxitzea, Europako Batasunaren erronkarik garrantzitsuena da, europar gizartearen ongizatea eta kohesioa arriskuan baitago.

Eskola-porrota eta eskola-uztea eragiten duten faktoreak

Europako Batasunaren informea (European Comision, 2009), gazte europarren eskola-porrotean eta eskola-uztean eragiten duten faktoreak aztertu ditu. Faktore horiek oinarrizko hiru arlotan sailkatzen dira. Lehenik, ikasleen ezaugarri pertsonalak aipa litezke: nortasuna, gaitasun mugatuak, ikasteko eragozpenak, osasun-larrialdiak, autoestimu eskasa, eta abar. Bigarren faktorea gazteen hezkuntza-inguruarekin lotuta dago: ikasten den hizkuntzan gaitasun urria izatea, irakasleekin ha-

rreman txarrak, bizikidetzan arazoak, aniztasunari emandako erantzun desagokiak... Eta, azkenik, informe horrek gizarte-arrazoiak aipatzen ditu: familien ekonomia- eta bizikidetzarazoak, auzo baztertuetan bizitzea, gurasoen formazio baxua eta hezkuntzaren garrantzia gutxieste.

Espainiako Estatuan eskola-uztearen oinarrizko arrazoiak ez dira oso ezberdinak. Beste batzuen artean, hauek azpimarra ditezke: ikastetxeen autonomia-falta giza eta ekonomia-baliabideak kudeatzeko; curriculum teorikoa; gaizki doazen ikasleak baztertzea eta ahaztea; aniztasunari dagozkion neurrien eraginkortasun-falta; irakasle batzuen profesionaltasun eta sentsibilitate eskasa; ikasgelako bizikidetzaren eragina; ikasketei zentzurik ez aurkitzea (“zertarako ahalegintzen naiz?”, “aspertzen naiz?”), lagunen eta familiaren jarrera desagokiak; osasun-arazoak (droga-kontsumoak, arazo psikikoak...); eta tituluak lortzeko gizartearen presioa (Mena, Fernández y Riviere, 2012).

Eskola-porrota eta eskola-uzte goiztiarra faktore pertsonalekin, akademikoekin eta gizartearen egoerarekin oso loturik daude. Arazo larri horiek ez dira dekretuekin eta erreformekin bakarrik konponduko, irakasleriaren pentsamendu-aldaketa beharrezkoa baita. Azken finean, hezkuntzaren muina, inguruaren, hezitzailearen, ikaslearen eta ezagutzen arteko elkarrekintzan dago. Eskola inklusiboagoa lortzeko lau elementu horien arteko oreka beharrezkoa da.

Hezkuntza inklusiboa: hobetzeko proposamenak

Ikertutako fenomenoaren konplexutasunaren aurrean, ez da erraza ikastetxeak hobetzeko proposamenak ematea. Dena den, egoki deritzogu, eta, neurri batean derrigo-

rrazko, iradokizun batzuk emateari, alde zuzenak azaldutako argudioak justifikatzen.

Europako Komisioak (2009), eskola-errotaren eta eskola-uzte goiztiarraren tasak jaisteko neurri hauek proposatzen ditu: eskola-ordutegiaren malgutasuna; ratioak jaitea; errefortzu pertsonalizatuak; eduki teorikoak gutxitzea, ezagutza praktikoak eta erabilgarriak indartuz; akademikoki gaizki doazen ikasleei ibilbide alternatiboak eskaintzea; oinarriko ezagutzak bermatzea; ikasleentzako elkarlana bultzatzea eta Lanbide Heziketari bultzada ematea. Era-kunde horren iritziz, Lanbide Heziketa indartsua duten estatuek, eskola-uzte eta eskolaren porrot-tasa txikiagoak dituzte.

Ez dugu kolokan jarriko nazioarteko erakundeak egindako proposamenen balihoa inklusio-arazoei aurre egiteko. Baina ekarpen horiek herri bakoitzean tokian tokiko egokitzapena behar dute. Hego Euskal Herrian, eskola-errotaren eta eskola-uztearen tasak jaisteko irtenbide zehatzak behar ditugu. Besteak beste:

-Alderdi politikoek, hezkuntzaren inguruan, akordioak lortu behar dituzte. Azkeneko 30 urteetan, hezkuntza-sisteman, sei erreforma jasan behar izan ditugu. Egoera horrek irakasleentzako, zuzendakuntzaren eta haserrea sortzen du.

-Haur Hezkuntzako lehen etaparen garapena (0-3 urte): maila sozioekonomiko baxua duten ikasleei aukeren berdintasuna bermatu behar zaie.

-Argitaratzen diren curriculum dekretuek oinarriko ezagutzak argi eta garbi zein diren zehaztu behar dituzte. Une honetan, ikasle batek bereganatu behar dituen gutxienezko edukiak zein diren zehaztu gabe daude. Zer egin behar du irakasleak egoera horren aurrean? Zer ezagutza bermatu behar zaizkie akademikoki gaizki doazen ikasleei? Zein da oinarria?

-Derrigorrezko Hezkuntzan oinarriko ezagutzak lortzea ikasleentzako eskubidea da. Beraz, ezagutza horiek derrigorrean bermatu behar dira. Gaur egun, zenbait HLKP-PCPI-etan, adibidez, ikasle batzuek ez dakite biderketak edo zatiketak egiten. Nola da posible hori? Zer gertatu da Derrigorrezko Hezkuntzan egoera horretara iristeko? Noren arduragabekeria da hau?

-Ikastetxeko Curriculum Proiektu (ICP) proiektuak beharrezkoak dira. Ikasleentzako curriculum-egokitzapenak egiteko ikastetxe bakoitzak bere curriculum proiektu behar du. Irakasle askok ez dute beren arloko curriculum-a prestatua, ikasliburuaren jarraitzaile sutsuak dira. Ikasliburua baliabide bat besterik ez da. Arloko ICPa, aldiz, irakasleak ikasleekin eta familiarekin bete behar duen kontratu pedagogikoa da.

-Derrigorrezko hezkuntzan (DBH barruan), irakaslearen profila ez du espezializatua izan behar. Derrigorrezko hezkuntzaren xedea ez da propedeutikoa, hau da, bere helburua ez da ikaslea Batxilergorako prestatzea. Derrigorrezko Hezkuntzak bere helburu proiektuak ditu. Beraz, irakasleak hezitzailea izan behar du batez ere. Irakaslearen profila espezializatua Batxilergoan eta Lanbide Heziketan bultzatuko da, ez lehenago.

-Irakaskuntza eta ikaskuntza-prozesuak dagokien, arazoaren ebazpena, proiektuen lanketa, kasuen azterketak eta metodologia kooperatiboak bultzatzea egokia izango litzateke, batez ere, Derrigorrezko Hezkuntzan. Ikaskuntza kooperatiboa indartzen duten estrategiak ikasleentzako integrazioa eta inklusioa bultzatzeko oso egokiak dira. TALIS (ELGA, 2009) ikerketaren arabera, Espainian ikastetxeetan lantzen diren irakaskuntza-ikaskuntza metodologiak, Italiarekin batera, Europako Batasunean teorikoenak dira.

-Baliok eta jarrerak bultzatzea: Derrigorrezko Hezkuntzan jarrerak ezagutzak bezain garrantzitsuak dira. Portaera desegokia edo lagun bihurriak dituen ikasleak aukera gehiago ditu ikasketak uzteko eta marjinazio-arriskuan geratzeko.

-Europar, eskola-errotaren tasa baxua duten hezkuntza sistemak autonomia handiko ikastetxeak dituzte. Irakasleak kontratatzearen autonomia beharrezkoa da, giza baliabideak ikastetxearen hezkuntza-proiektura eta ikasleentzako beharretara egokitzeko.

-Lanbide Hastapenaren (HLKP-PCPI) egoera ebaluatu eta hobetu behar da. Sektore horren egoera Hego Euskal Herrian tamalgarria da, profesionalen lan-baldintzak duintasunaren mugan baitaude. Administrazioak zerbitzu horren norabidea eta xedea ebaluatu eta berriro aztertu

beharroko ditu.

-Ikastetxeen, oinarriko gizarte-zerbitzuen eta Osakidetzaren arteko lankidetzaren beharrezkoa da. Askotan, ondo ez dabilen ikasleek beste arazo mota batzuk ere badituzte (droga-kontsumoak, arazo psikikoak, familiarekin harreman gatazkatsuak, justiziarekin arazoak...). Egoera horiek ezin ditu ikastetxeak bakarrik konpondu, oinarriko gizarte zerbitzuekin lankidetzaren bultzatzea beharrezkoa da.

Hego Euskal Herriko herritarren hezkuntza integrala eta inklusioa eskaini ahal izateko, alderdi politikoaren arteko adostasun zabalak behar dira. Hezkuntza-sistemarekin lotuta dauden arazoak (eskola-errotaren, eskola-uztearen, ikasleentzako gatazkak, cyberbullying-a, drogen kontsumoa ikastetxeetan...) eta gizartearekin lotutakoak (zenbait familiareko egoera larria, eraso sexualak eta filoparentalak, arazo psikiatrikoak, langabezia eta prekarietatea...) erantzun sendoa emateko administrazioen arteko koordinazioa beharrezkoa da. Irakasleak, gurasoak edo ikastetxeak, bakoitzak bere aldetik, ez dira gai behar horiei irtenbide egokia emateko. Esku-hartze komunitarioa, herri-lana eta administrazioen arteko politiken koordinazioa (udalak, foru aldundiak, hezkuntza, gizarte zerbitzuak, osasun eta enplegu sailak) derrigorrezkoak dira, egun, ditugun arazo konplexu horiei aurre egiteko.

Bibliografia

-EUROPEAN COMMISSION (2009). *Commission staff working document: Progress towards the Lisbon objectives in education and training. Indicators and benchmarks*. Luxembourg: Office For Official Publications of the European Communities.

-INSTITUTO DE EVALUACIÓN (2009). *Panorama de la educación. Indicadores de la OCDE. Informe español*. Madrid: MEC.

-MENA, L., FERNÁNDEZ, M. y RIVIÉRE, J. (2010). *Desenganchados de la educación: procesos, experiencias, motivaciones y estrategias del abandono y del fracaso escolar*. *Revista de Educación*, zenbaki berezia 2010, 119-145.

-OCDE (2009). *La creación de entornos eficaces de enseñanza y aprendizaje. Síntesis de los primeros resultados*. Madrid: Santillana.

gaztezulo com
HI ETA HIRE MUNDUAK



PREZIO TXIKIA OPARI HANDIA



GUK ZURI ERE OPARI... aukeratu!

**20€ BAKARRIK
URTE OSORAKO**

**EGIN HARPIDETZA
943 457 250
harpidetza@gaztezulo.com**



**ESNE BELTZAREN
CD+DVDa**



**GATIBUREN
DISKO BERRIA**

galdeidazue

Ba al du zentzurik ikasleen artean elkartasun-egiturak sortzeak



Kideen arteko harremanen eremuari buruzko hamaika ikerketa egin dira azken hamarkadetan, eta berdinen arteko adiskidetasunaren gaia arretagune nagusia izan da ikerketa horietan. Jakin badakigu, ikasle-laguntzaileek esku hartzen duten hezkuntza-jarduerak hezkuntzako eta garapen moralerako aukera bihurtzen direla, harremanekin edo ikasketekin lotutako gatazketan borondatez eta modu autonomoan jarduten dutenean.

Gaur egun, heziguneetan, hainbat sistema abiarazi dira, eta sistema horietan, gatazken prebentzioan, azterketan eta konponbidean ikasleek parte-hartze aktiboa eta protagonismo handia dute. Programa horietako bat, ikasle-laguntzaileena da. Programa horrek, prestakuntza jaso duten ikasleek arazoak izan ditzaketen ikasleak atzeman eta ikasle horiei harrera egin eta laguntza eskaintzeko sare sozialak sortzea du helburu. Lan horretan guztian, betiere, zentroak antolaketa, gainbegiratzea eta onarpena izango du, eta, zentroak prestutasuna, konfiantza eta elkartasuna eskaintzen du.

Gure eskarmentuan oinarrituta, esan behar dugu sistema horiek Gatazketarako Bitartekotza Programak ezinbesteko osa-



Juan Carlos TORREGO

MADRILEKO ALCALA UNIBERTSITATEKO
DIDAKTIKA DEPARTAMENDUKO IRAKASLEA

gari direla: bi programek gatazkek lankidetzaren bidez eta modu baketsuan konponitzeko kultura partekatzen dute, eta horiei esker, eskola-komunitateko kide guztiek dute gatazken konponbidean parte hartzeko aukera, elkarrekin. Azkenaldian ezinegon handia eragin duen bullying edo eskola-jazarpenaren fenomenoaren prebentzioan oso baliagarria dela azpimarratu nahiko nuke.

Jarraian, programa horien ezaugarri

nagusiak azalduko ditut, eta baita heziguneetan era eraginkorrean antolatzeko jarraibideak ere.

Zein dira ikasle-laguntzaileak?

Ikastalde bakoitzean bi edo hiru ikasle-laguntzaile egon daitezke. Hainbat ezaugarri dituzte:

- Gatazken konponketa-alorrean prestakuntza dute.
- Ikaskideen konfiantza dute.
- Taldeko bizikidetzari begira daude.
- Gaizki daudenei edota zailtasun pertsonalak edo ikasteko zailtasunak dituztenei laguntza ematen diete.

Izan ere, ikasle horiek gizarte-gaitasun jakin batzuk eskuratu dituzte: enpatia, elkartasuna, ongizate orokorra, eta abar. Besteren konfiantza izaten dute, ikaskideen premiekin sentiberak dira, eta laguntza eta babes horiek modu egituratuan eskainiko dituzten programa batean parte hartzeko prest daude.

Programak zenbait izenez ezagutzen dira: “berdinen arteko laguntza”, “bizikidetzataldeak”, “laguntza-ikasleak”, “kideen kluba”, “ikasle solidarioen sarea”, “ikasle-laguntzaileak”, edo “peer support”. Guz-

tiak bat datoz ikasleei bizikidetzaren hobekuntzan ikastetxean protagonismo berezia emango dieten egiturak indartzearekin.

Ikasle-laguntzaileen eginkizunak

Laguntza-programaren antolakuntza ikastetxe bakoitzaren errealitatera eta ikasle-laguntzaileen heldutasun-mailara eta gaitasunetara egokitu behar da. Horregatik, helburua da ikastetxeak eta ikasle-laguntzaileek berek taldearen eginkizunak eta lehentasunak zehaztea, ikastetxearen premien arabera, betiere. Halaber, beste helburu bat jardueri ezarritako mugak zehaztea litzateke. Beraz, eginkizunak finkatzea, ikasle-laguntzaileen prestakuntza-prozesuaren barruko beste hezkuntza-jarduera bat litzateke.

Ikasle-laguntzaileen eginkizunei dago-kienez, hona hemen proposamen bat:

- Ikasle iritsi berriei harrera egitea eta taldean integra daitez en ahalbidetzea.
- Baztertuta daudela sentitzen duten, zailtasun pertsonalen bat duten, norbaitek entzutea behar duten edota norbaitekin egotea behar duten ikasleei laguntzea.
- Ikaskideei laguntzea, beste norbaitek "zirikatzen" dituztenean.
- Eskolako lanetan eman beharreko laguntzaren antolakuntzan jardutea.
- Gatazkak antzematea eta aztertzea eta balizko konponbideak, esku-hartzeak edota bideratzeak bilatzea.
- Zailtasun handiko lanetan, uneetan edota egoeretan ikaskideei laguntzea.
- Ikastetxeko bestelako ikaskideekin batera, bizikidetzara, elkarri izan beharreko errespetua, ingurumena eta pertsonak zaintzea, eta abar hobetzeko ekintzetan eta balioetan parte hartzea eta horiek sustatzea.
- Ikasle-Laguntzaileen Taldearen bileterara joatea.

Aipatutako laguntza-jardunak hainbat garai eta gunetan gara daitezke: jolasgarria, jolastokian, ikasgeletan, jantokian, eskola-orduetan, eskola-orduetik kanpo, eta abar. Ikasle-Laguntzaileen Taldeak jolastokian gertatzen diren elkarreaginak antzemateko eta aztertze esku-hartzeak diseina ditzake, horiek interpretatzeko adierazleak hautatuz eta, hortik abiatuta, antzemandako zailtasunak konpontzeko edota inklusioa sustatzeko jarduerak asmatuz.

Taldeak erne egon behar du, laguntza eskatzen dutenei edota isolatuta daudela antzemandako pertsonen laguntzeko eta haien lagun egiteko. Ikastetxera iritsi berri direnei harrera egin diezaiekete, eta baita lagundu ere, ikasketa-zailtasunei, frustrazioei, ikaskideekiko arazoei, bakardadeari, goibeltasunari, familia-arazoei, tratu txarrei eta abarri aurre egiten lagundu, hain zuzen.

Era berean, poztasunean, jarduera berezian antolakuntzan, ekitaldietan edota topaketa-jardunaldietan ere parte hartzen dute, kultura-adierazpenen aniztasuna bultzatuz, tradizioei berriz ekinez eta jarduerak dinamizatuz. Baita lehiakortasun-jardueretan ere, ikastetxeetako bizitzan oso ohikoak baitira horrelakoak.

Ikasle-laguntzaileek konpontzen dituzten gatazka nagusiak

- Taldeko partaide izatea, isolamendua, gutxiespena.
- Liskarrak: irainak edota eraso txikiak.
- Gaizki-ulertuak.
- Arazoak ikasgela osoan: portaera txarra, zikintasuna gelan, taldea banatuta egoitea, eta abar.
- Ikasgela osoari kalte egiten dioten banako jokabideak.
- Arazo pertsonalak.
- Absentismoa.

Ikasle-laguntzaileen profila

- Ikaskideen ongizateari edota ondorezari begira dagoen pertsona da.
- Konfiantza ematen du.
- Entzuten daki.
- Berdinei laguntzen saiatzen da.
- Arazo larriak konpontzeko ikastetxeak dituen baliabideak ezagutzen ditu.
- Behar dutenei baliabide horien eta edukiaren berri ematen die.
- Bere jarduteko gaitasuna gaingitzen duten arazoak bideratzen ditu, dagokionak konpon ditzan.

Ikasle-laguntzaileen profila definitzeko modu errealista samar bat, legitimitate handiena duena, ikasleen iritzia kontuan hartzea da; prestakuntza-jarduerak antolatzen ditugunean, ikasleek esan ohi digute laguntza-harremana "zer den" eta "zer ez den" edo zer ez lukeen izan behar. Horrela, ikasleek honako ezaugarri hauek dituzten per-

Programa horien bidez, ikasleek osatutako eskola-sareak edo sistemak indartzen dira, betiere ikaskideei laguntzeko eta gatazken prebentziorako, eta konponbiderako



tsonak bilatzen dituztela esan ohi dute:

- Zer gertatzen zaidan kontu diezaioket.
- Ni entzuten eta ulertzen badaki.
- Ongi tratatzen nau eta ez du nitaz barre egiten.
- Naizen bezala onartzen nau.
- Aintzakotzat har dezaket.
- Behar dudanean, laguntzen nau.

Horretaz gain, pertsona bereziak edo hobeak ez direla ere nabarmendu dute. Beraietako inor ez da kontakatila, marmartia, berritsua, lausengarria, gainerakoak baino hobea dela uste duena, irakaslearen laguntzailea, eta abar.

Hain zuzen, laguntza-eginkizunak betetzen dituen ikaslea gainerakoen premiekin sentibera da, entzuten badaki eta konfiantza eman ohi du, laguntza eskaintzeaz, errespetatzeaz eta babesteaz gain, besteak beste.

Egiteko horietan, ikasle talde batek hartzen du parte, bere borondatez. Taldea sortu ondoren, laguntzari, asertibitateari, entzuteari, emozioak maneiatzeari, enpatiarri, gatazkak eraldatzeari, arazoak konpontzeari, eta abarri buruzko prestakuntza eman ohi zaio talde horri.

Zentroak konpromisoa hartzen du ki-deen arteko parte-hartzearen eta laguntza-formula horrekin eta ez, soilik, prestakuntza emanez; zentroaren beraren antolakuntzan txertatuz, ikasle horiek laguntzeko eta lagun egiteko tokiak eta uneak sortuz; helburuak, balioak eta egitekoak zabalduz; irakasleak eskainiz beren esku-hartzeak gertutik jarraitzeko eta gainbegiratzeko, zailtasunei aurre egiteko, adore emateko,

Ikasle-laguntzaileen profila definitzeko modu

errealista samar bat, legitimitate handiena duena, ikasleen iritzia kontuan



hartzea da; prestakuntza-jarduerak antolatzen ditugunean

erabakiak hartzeko, berdinen arteko laguntza-zerbitzua sustatzeko.

Laguntza-harremanaren faseak

Laguntza-prozesu bat eta harreman pertsonal mota bat dagoela esan nahi du, iraupen mugatuko baina adiskidetasunezko edo, besterik gabe, kideen arteko harreman iraunkor bihur daiteke.

Harreman pertsonal guztien moduan, "historia" bat (faseak) du. Zenbait kasutan, fase guzti-guztiak gertatuko dira eta, bestetan, zenbait fase baino ez, edo fase jakin batek besteek baino garrantzi handiagoa izango du. Prozesu horretan bost fase bereiziko ditugu:

1. Hurbiltzea.
2. Laguntzea.
3. Sakontzea.
4. Jarraitzea.
5. Urruntzea.

Berdinen arteko laguntza-programak ezartzeari buruzko ondorioak

Lehen ere esan dugunez, programa horien bidez, ikasleek osatutako eskola-sareak edo sistemak indartu egiten dira, betiere ikasleek laguntzeko eta gatazken prebentziorako, antzemateko eta konponbiderako sare edo sistemak sortuz. Jokabide altruista bultzatzea dute xede, adin eta status berdineko beste pertsona bati arazoak edo gatazka konpontzen edo eskolako lanen bat egiten laguntzeko, hain zuzen.

Zenbait ondorio atera ditugu Bizikidetzaren Planaren barruan programa horiek txer-

tatzeko ikastetxei prestakuntza-alorrean eskainitako laguntza aztertu ondoren:

Zentroaren antolaketa dagokionez: proiektuek prozedura eta egitura berriak sortzen dituzte ikastetxearen antolaketan, irakasleen eta ikasleen arteko lankidetzaren balioak ardatz izanik. Ikasle-laguntzaileen programak ikastetxean laguntza-sare solidario bat dagoela esan nahi du. Balio praktikoa handia du gatazken eta problemen prebentziorako eta horiek atzeman eta modu parte-hartzailean konpontzeko garaian, baina, batik bat, balio hezigarri handia du ikasleentzat.

Berdinen arteko laguntza-sarea ikasleen parte-hartzearen adierazgarri da, ikasleek zentroaren bizitzan parte hartzen duten adierazgarri bizia; partaide izatearen zentzuan eragiten du eta, beraz, hezkuntza-inklusioa sortzen du. Taldeen barruan kideen arteko elkarrekiko mendetasun positiboa sustatzean, guztiek baliabideak partekatuko dituzten dinamika bultzatzen da: denek elkarri laguntzen diote eta elkarrekin erdieskitako lorpenak batera ospatzen dituzte.

Ikastetxe askotan garatzen ari dira laguntza-programak eta emaitza oso onak lortzen ari dira eskolako bizitza hobetzeari dagokionez. Ikastetxeetan laguntza-egiturak sortzeko ahaleginak areagotu egin dira azken aldian, bai ikaskuntza-alorrean, bai eskola-bizikidetzaren alorrean eta, horren ondorioz, ikastetxeak "goxoagoak", seguruagoak, kooperatiboagoak eta, aldi berean, eraginkoragoak dira. Hezkuntza-sistemaren bi gaitz nagusiak, eskola-porrota eta bazterkeria, arazo beraren bi alderdiak dira eta, kasu askotan, laguntza eza izaten da arazo horren muina. Ikasgeletako ondoeza areagotu egiten da, ez baldin badago behar beste baliabide ikasleei zailtasunak gainditzeko, edo laguntzeko baliabiderik onena ikasleak beraiek direla aintzat hartzen ez bada. Hori horrela izanik, talde baten barruan ikaskuntza eta bizikidetzak ditzakeen paradigma izan daiteke laguntza.

Ikasle-laguntzaileen garapen pertsonalari dagokionez: berdinen arteko laguntza-proiektuak, bereziki, balio hezigarri handia du, lidergo positiboa sustatzen du, ikasleen gizarte-gaitasuna garatzea ahalbidetzen baitu, ondorengo trebetasun hauek garatuz: enpatia, entzute-aktiboa, autokon-

trola, komunikazioa eta garapen moralak. El-karrizketaren, tolerantziaren eta laguntza-aren balioetan oinarritutako hezkuntza-aren praktika moral "erreal" da, gizarte-bizitzarako egiazko prestakuntza, alegia.

Ikasle-lagunduei dagokienez: laguntza jasotzen duten ikasleek egoera latzak gainditzakete; badakite norengana jo dezaketen babes eske. Pertsonen arteko guneetara iristea lortzen da eta, ziurrenik, irakasleek ezin izango lukete gune horietara iritsi. Naylor eta Cowie (1999:1690) autoreen arabera, Bigarren Hezkuntzako 51 ikastetxetako ikasleek eztabaida-taldeen bilerak egin zituztenean, zerbitzu hori erabiltzearen funtsezko hiru onura ondorioztatu zituzten: "hitz egiteko norbait, entzungo zaituen norbait" eskaintzen du, "arazoari aurre egiteko indarra", eta "norbaitek zainduko zaituela" erakusten du.

Halaber, programa ezarrita zegoen zentro bateko kasu jakin bat aztertu ostean (Andrés, 2009:488), honako ondorio hau atera dugu: Ikasle-Laguntzaileen Programa oso baliagarria izan da ikasleen arteko gatazka antzemateko eta, batez ere, botere-gehiegikeriak eragindako berdinen arteko tratatu txarren kasuak bideratzeko. Era berean, programan zuzenean inplikaturako ikasleen gizarte-garapenerako faktore erabakigarria izan dela frogatuta geratu da. ☹

Oharra: Juan Carlos Torregok Ikastolen Elkarteak antolatutako "Elkarbizitza eredu berri baterako pedagogia" jardunaldiaren parte hartu zuen Gasteizen.



argitalpenak



Izeko Eli eta biok

Xabier Olaso / Ima Mendiola
IBAIZABAL

Izeko Eli Aneren izekorik kuttunena da, maitagarria, bromazalea eta bidaiazale porrokatua. Bidaia horietako batean, Obaba-Ibibi-Bobo buruzagi massaiak zuhaixka-hazi misteriotsu batzuk oparitu zizkion izeko Eliri. Herrira bueltan, izeko Elik Aneri utzi zizkion zaintzeko, berak beste bidaia bat egin behar baitzuen. ETa hara non, behin batean, gauza mirezgarria gertatu zen...



Mozoloaren bakardadea

Juan Luis Zabala / Begoña Durruty
EREIN

Mozoloa bere habiatik irtegan bizi da orain; lehen bezala. Lehen lotsagatik izan zen; orain beldurragatik. Ipuin tradizionala eguneratu dute egileek album ilustratu honetan. Galtzagorri euskal haur eta gazte literatura elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiari esker, azken lau urteetan Artelekun antolatu duen ilustratzaile berrientzako Marraz(1) Oak topaketetan sortutako lana da 'Mozoloaren bakardadea'.



Bakarrik eta buztangabe

Patxi Zubizarreta / Jokin Mitxelena
PAMIELA

Udako oporrak dira, eta afrikar askoren auto eta furgoneta pila Iparretik Hegora doa. Furgonetan horietako bat gasolindegian geratu da depositua betetzeko. Baina furgonetakoak joan direnean, neskatila bat utzi dute: ahantzirik... Gero, auto bat gelditu da, eta autokoak abiatu direnean katu bat utzi dute: abandonaturik... Eta gasolindegiko gizonak ez daki zer egin neskatila ahantziarekin eta katu abandonatuarekin!.



Aniztasun afektibo-sexuala lantzeko materialak

GEHITU

DVD honek gelan sexu-orientazio, identitate eta honen inguruan sor daitezkeen arazoak lantzeko zenbait material biltzen du. Aniztasunean eta diferentzian hezitze-ko gizarteari, hezitzaileei eta familiei sortutako zalantzak argitu eta laguntzeko proiektua da, ikasleek euren orientazio eta identitate sexuala askatasunez bizi ditzaten lagun-garri izatea helburu duena.



Animalien alfabetoa

IKASTOLEN ELKARTEA

Jolasteko zortzi era dituen jolas interaktibo honek hizkuntza du elementu aipagarriena, hainbat audio euskaraz entzuteko aukera ematen baitu. Umeak entzun, behatu, ukitu, erantzun egiteko aukera izango du, eta jarduera hauen bitartez eta jostailuak ematen dizkion eredu ugari eta aberatsei esker, hainbat kompetentzia (ahozko hizkuntza, harremanak...) garatuko ditu.



Maite-Maite ile-apaindegia

Marie-Aude Murail / Aiora Jaka
ELKAR

Louisek astebetez praktikak egin behar ditu, bere adineko ikasle guztiek bezala. Ezta ideiarik ere non. Ez zaio eskola gustatzen eta ez du bere burua ezertan trebea ikusten. Maite-Maite ile-apaindegian hasiko da praktikak egiten. Irakurle gazteei zuzendutako eleberriz iniziatikoa da, egunkari baten modura idatzita.

... nora joango gara?

ARRIKRUTZ Lurraren barrunbeetan

Oñati-Arrikruz haitzuloa ikasleak hartzeko prestatu dute, natura-gunearen balioaz sentsibilizatzeko

Gaur egun, informazio guztia “klik” batera dagoela esaten da, hau da, Interneten. Lehen, entziklopediei buruz esaten zen hori, bilduma bakoitzak historiaren atal bat kontatzen zuela. Oñatiko Arrikruzeko kobak bene-benetan eskaintzen du gure lurra-ri buruzko informazio osoa, naturari eta ondareari dagokienez. Aizkorri mendiaren magalean, Arantzazuko Santutegitik gertu, eta lur azpian, espeleologia-, arkeologia-, paleontologia- edota mitologia-lezio interesgarri bat ikasi ez ezik bizi ere egin liteke Arrikruzeko haitzuloetan, pauso batera.

Arrikruz-Oñatiko kobak Aizkorri-Aratz parke naturalean daude, ingurune karstiko paregabeetan. Bertan, Arantzazu eta Aldaola errekek Gipuzkoan ezagutzen den kobazulo-sare handiena eratu dute eta ia 15 kilometroko galeria sarea osatu.

Arrikruzten aurkitu diren ondasunak, alor ugaritan, aitzindariak izan dira Euskal Herrian. Aurkikuntza arkeologikoei dagokienez, adibidez, honako elementu hauek agertu dira indusketetan: haitzuloetako lehoi baten eskeletoa; eskeleto-atalak eta pantera-burezurrak, eta hartz-aztarnategi ikusgarria.

Mitologiari dagokionez, Arrikruzeko kobak kondaira ugariaren sorburu izan dira, oso leku berezia izan baita Oñatiko eta inguruetako biztanleentzat mende luzeetan. Duela ehunka urte, esate baterako, Oñatiko, Deba Garaiko eta Arabako biztanleak





Sandaili haitzulora joaten zirela erromesaldian, soroetarako euri-eske. Bestalde, emakume antzuek bainua hartzen zuten Sandailiko uretan, emankorrak izateko. Milaka urte lehenago, jentilen garaian, sortutako ohiturei eusten zieten horrela.

Arrikruz, natura aldetik eta ondare aldetik duen balioa kontuan izanik, bisitak hartzeko prestatu dute. Geologia, arkeologia, mitologia... landu ahal izango dira bisita horretan ikasleekin. Alde batetik, haitzuloan barrena ibilaldi bat egin liteke, 60 minutu inguru irauten duena. Ibilaldi horretan honako gai hauek jorratu ahal izango dira:

Hidrologia: urak eta hidrologiak haitzuloa nola zizelatu duten ikus daiteke, bertatik bertara.

Karst-sistema: kare-harri (karst) bikain ikusgarriak daude Aizkorri mendia ren magalean. Gesaltza-Arrikruzeko haitzuloaren barrunbean, 14 kilometrotan, karst-sistema konplexua dago.

Geologia: haitzuloaren osaera geologikoa oso aberatsa da. Ikuspuntu geologikotik, urazpiko erreka eta estalaktita izugarritz betetako galeria dira guztietan aipagarriak.

Mineralak: Arrikruzeko mineral-uni bertsoa nola sortu zen ikus daiteke.

Arkeologia eta paleontologia: Euskal Herrian (eta, zenbaitetan, Iberiar penintsulan) aitzindariak izan diren aurkikuntzak egin dira haitzulo honetan.

Mitologia: Sandailiko kondairak ezagutzeko leku paregabea da.

Espeleologia: espeleologiaren historian Arrikruzek izan duen garrantzia ezagutu liteke. ¥

ARRIKRUTZ-OÑATI

Oñati (Gipuzkoa) herritik Arantzazu Santutegiko errepideko 4. kilometroan dago Arrikruz-Oñatiko Kobetako bidegurutzea.



Erreserbak: ARRIKRUTZEKO KOBAK bisitatu ahal izateko, erreserba egitea gomendatzen dute.

Tel.: 943 08 20 00

Posta: arrikruz@oinati.org

PREZIOAK

4 euro ikasleko (irakasleak dohainik)

Material pedagogiko zabala

Ibilaldia osatzeko, eta ikasleak natura-gunearen balioaz sentsibilizatzeko, baliabide pedagogiko zabala eskaintzen du natura-guneak. Lehen Hezkuntzako, Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleei zuzenduriko unitate didaktikoak dituzte, eta honako gai hauek jorratzen dituzte:

➤ **Geologia:** “Arroka eta materialak”. Ekintza honen bitartez Euskal Herriko arroka eta mineral nagusiak ezagutuko ditugu. Nola bereizten ditugu arrokek eta mineralak? Zein dira batzuen eta besteen ezaugarriak? Nola eta zertarako erabiltzen ditugu gure eguneroko bizitzan? Galdera horien eta beste batzuen erantzunak bilatzeko ariketak egingo dira.

➤ **Historiaurrea:** “Kobako bizitza antzinako animalien artean”. Lehen gizakien bizimodua, tresnak, bizilekuak, elikagaiak... zein ziren azalduko da, eta baita paleofauna (paleolitoko fauna) ezagutuko ere. Historiaurreko aroei buruz ere hitz egingo da, hala nola, paleolitoaz, neolitoaz eta metalen aroaz.

➤ **Ura:** “Bizitza iturri”. Urak naturan eta gure eguneroko bizitzetan duen garrantziaz konturatzeko da ariketa horien helburua.

➤ **Kobetako ekosistema:** “Ingurune ezezaguna eta aztarnategi garrantzitsua”. Kobazuloen ekosistema eta horren egitura ezagutaraziko da.

➤ **Karstologia:** “Erliebearn eraldaketa. Paisaia karstikoa”. Nola sortu da gaur egun ikusten dugun paisaia/erliebea? Nola eratzen da erliebe hori? Betidanik izan al da horrelakoa?



atzeko atetik



Saioa IRAOLA URKIOLA

Bilgune Feministako kidea

Norberaren gorputzaren onarpen ezak pertsona abailtzen du; txiki txikitatik esan eta entzun izan dut, emakume gisa sozializatua izan naizen momentutik: “argala, abegikorra, konplazientea, polita izan behar duzu”. Honen kostua ikaragarria da, larreko, kaleko, ikastetxeko, jolastokiko hesiak irekita dituzun arren, lotuta baitzaude arantzen artean.

Halaxe sentitzen nintzen ni hamabi, hamahiru urte nituela; nire etxeko ispiluen eta komuneko zuloaren aurrean, buru makur.

Institutuko 1. mailan nengil. Leitza herri txikia izanik, herriko gaztetxo guztiak institutu berean ikasten genuen, 40 bat ginen orotara. Eskolaz kanpoko jarduerara nindoan, areto futbo-

Hamaiketakoa zakarrontzira!

lean jolastera, herriko eskola ingurura eta bertan lagun koadrila bat zegoen, artean nik gustuko nuen mutila. Eta hizketaldi osoa gogoan ez dudan arren, esaldi bat ez zait sekula ahaztuko, mutil hark zera esan zidan: “Saioa, aurpegiz polita zara, baina gizona zaude!”.

Esaldi hark min egin zidan, baina ez zidan minik emango aurretik ez banintz gutxietsia sentitu izan “gizonen” kirol batean, pilotan, aritzeagatik; gorputzez sendoa izanik iseka egin ez balidate, arropa dendetara joan eta 44 tailadun galtzarik aurkitu ezinik ibili ez banintza, eskolan jasotzen genituen eduki sexisten aurrean altxatu eta ikasle gizon eta neska askok beti ez balidate histerikotzat jo: “Saio, baño ez hartu hola”; edota herrian “tradizioaren” izenean egiten diren emakumeok gutxiesteko erritoak, ekintzak ez banitu ikusi.

Hala, institutuko bidean, etxe behean zegoen zaborrontzian hamaiketakoa botatzen hasi nintzen; etxera joan eta gose ez nintzela esaten, edota jan eta edaten nuena bortxaz botatzen. Pertsona indartsua izan naiz beti, etxean amak holaxe hezi gaitu ahizpa eta bioi, “*protestona*” deitu izan didate eta egia da, nahi nuena lortzeko la-

na egin izan dut beti. Alaia, besteei laguntza emateko prestutasuna izan dut beti, baita orduan ere, baina bada adin bat zeinetan, zure barne indarra, grinaren eta kanpotik datorkizun presio sozial, pertsonalen arteko talka gertatzen den zure barnean, eta nik inguruak asko maite ninduen arren, etxean asko hitz egiten genuen arren, urte zailak bizi izan nituen; eta kanpokoak: mamuek eta hitzek irabazi zidaten partida hura. Emakume asko eta askori irabazi dioten bezala, baina bizitza partida bat eta bakarra ez delako, nik irabazi nuen hurrena; etxekoan, lagun-nen, irakasleen, psikologoaren eta nire barneko indarraren laguntzaz; eta orduz geroztik nik irabazi ditut denak, nahiz eta batzuetan ederki kostatu zaidan.

Urtetan, sozializazio prozesuaren bitartez, herrian zein ikastetxean irakatsi zidaten guztia (nolakoa izan behar duzu, mutilak izan behar dituzula gustuko, patriarkatuen oinarritutako tradizioa gainbalioa ikaragarria izanik “beti hola izan da” lemapean ekimen oro onartzea, e.a.) birpentsatzea, deseraikitzea eta barne-kanpo borrokan estuki lotzea ekarri zidan, bestelako Saioa bat eta bestelako herri bat erdieste aldera.



“Hezkuntza da ikasitakoa ahaztu ondoren irauten duena”

B. F. SKINNER

TOP SECRET



ELHUYAR
edizioak

4

Simon Singh

KODEEN LIBURUA

Kodeen eta kodeak hausteko sistemen historia sekretua

Simon Singh

KODEEN LIBURUA. Kodeen eta kodeak hausteko sistemen historia sekretua



"Enkriptazioa gure inguruko gauza guztietan dago"
Simon Singh

Hura babesteko modua informazioa kodetzea da eta aspaldi hasi ginen kontu honekin... Asmatu zituzten kodeak, baina hauek hausten saiatu ziren eta orduan kode hobeak asmatu zituzten, baina kode horiek ere hautsi zituzten... Gaur egun, informazioaren garai honetan, informazioa babesteko inoiz baino gaurkotasan gehiago du informazioa kodetzeak.



Z izpiak

**KODEEN LIBURUA.
KODEEN ETA KODEAK
HAUSTEKO SISTEMEN
HISTORIA SEKRETUA**

Egilea: SIMON SINGH

THE CODE Book liburuaren euskarazko itzulpena.

www.elhuyar.org/edizioak





Laura Gutmanen Hitzaldia Donostian 2013ko otsailaren 21ean, osteguna

MeitaiMaitiek Laura Gutmanen "El método de indagación personal basado en la construcción de la biografía humana por Laura Gutman" hitzaldia antolatuko du, gure gizarteari amatasun, haziera eta familia loturetan mundu mailako espezialista den pertsona gerturatzeko intentzioz.

Donostiako Arantzazu hotelean. 17:00etatik 20:00etara.
% 20ko beherapena 5 pertsona edo gehiagoko taldeei.



www.meitaimaitie.com

MEITAI MAITIE
20211 Ataun (Gipuzkoa)
Tel> 627 418 907
Tel> 635 700 986
@ > info@meitaimaitie.com

